

uk

126. zenbakia / 2007 urriak 26



EUSKAL KULTURAREN JARDUNALDIetako

kartel eta eskuorriaren protagonista izan nahi duzu?

Altua bazara, ile horia eta begi urdinak badituzu izan zaitezke. Txikia bazara, beltzarana ete begi marrioduna ere bai. Emakumezkoa edota gizonezkoa bazara, gazte zein heldu, agurea edo atsoa zuek ere izan zaitezke. Zaren bezalakoa, edonongoa izanda ere, amerikarra zein asiarra, getxoztar jatorra zein getxoztar etorkina, izan zaitezke. Animatu zaitez,

ARGAZKIA ETA TELEFONOA BIDALTZEAGAITIK SOILIK KAMISETA BAT IRABAZIko DUZU.



Bidali ezazu argazki bat zure telefonoarekin nemonica-ra. [Gardoki kalea,1-7. solairua 48008 Bilbao edota info@nemonica.com, EUSKAL KULTURAREN JARDUNALDIAK erreferentzia jarrita]

z e u r e a z a i n d u

EUSKARA BIZI

EUSKAL KULTURAREN IX. JARDUNALDIAK ● XI JORNADAS DE LA CULTURA VASCA

A Z A R O A R E N 1 9 T I K A B E N D U A R E N 4 R A

«Maitasuna eta ilargia, ez badira handitzen, gutxitzen» Euskal esaera

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Begiratzeko moduak, Asier Mentxaka.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Lamiako.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 11. ERRETRATUA. Antonio Vazquez Borlas.
- 12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
- 25. AGENDA.

SAKONEAN

- 26. ALBUMA. Gorlizko memoria.
- 28. ARGAZKIA. Igerlariak Gorlizen, Javier Pedro Fernandez.
- 30. BERBETAN. Inazio Gutierrez, Jokin Aspuru.
- 34. FOTOGRAFIA. Getxo, bestelako postalak.

KULTURA ETA AISIA

- 42. ZINEMA. Denboraldia abian.
- 43. MUSIKA. Governors taldea. Diskoen erreseinak.
- 44. LIBURUAK. Alberdania argitaletxearen uztia. Liburuen erreseinak.
- 45. KIROLAK. Punta Galea Big Challenge.
- 46. ELKARRIZKETA. Txarli Llorente.

AMAITZEKO

- 49. NORA JOAN? Adibidez, Algortako Suteji jatetxe berria.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Ehiztariak eta arrantzaleak 1963an, Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Harkaitz Martinez, Maitane Nerekan.

Azaleko argazkia: Aldapa auzoa 2007, Asier Mentxaka



ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta Elkartea
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Ander P. Goikoetxea, Maitane Nerekan
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Inge Beitia
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egunrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Amezaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Paya, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizara Lepoan Euskara Elkartea.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

© Boluntzarreta

 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaidea da

ERAKUNDE LAGUNTZAILEAK



gugeu

Memoria


Hauxe duzue UKren 126. zenbakia, udagoien epel honetan bete-betean sartuta gaudela argia ikusten duena. *Gu geun* zenbaki honetan memoriari loturiko jorratu ditugun gai bi nabarmendu nahi izan ditugu: batetik, **Inazio Gutierrez Osteikoetxeari** egin diogun elkarrizketa luze eta oparoa (Portu Zaharreko memoria bizia da Inazio); bestetik, **Gorlizen** arreta ipini dugu, han euren memoriari ikusgarritasuna eman nahian argazki zaharrekin liburua argitaratu berri dute.

Onartzen dugu, bai, akaso adinean gora goazelako obsesio bihurtu zela aspaldian memoria gure erredakzioan. Denborak etengabe nahasten zaizkigu gure eguneroko bizitzan: iraganeko akorduak egunero izaten ditugu; momentuan, orainean, gauza mordoa egin behar izaten ditugu; eta azkenik, beti egoten gara etorkizunerako planak makinatzen. Baina, daukagun gauza bakarra da memoria. Iragana, hortxe dago beti, tinko eta aldaezina etorkizunerako irakaspen eta giltzez betea.

Oraina instantean doa eta geroa etorkizuna da. Iragana da beti iraungo duena.

UK-ko lantaldea

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

gutuna >

JOSEBA SANCHEZ MATRAKOREN LAGUNEI

Eskerrik asko bihotz-bihotzez eskaini diguzuen laguntzagatik. Zeuen elkartasuna guretzat, bere familia, aire puxika bat izan da, Josebaren gaixotasunean eta bere heriotzaren ostean ere. Basurtuko ospitalak minbizia zuela esan zigunean berak 29 urte zituen eta hainbat hilabete zeramatzan medikuengana joanez sintomak zituelako. Joan zen bakoitzean etxera bidali izan zioten “molestia gastriko”entzako tratamenduak emanez. Ez ziguten inolako aukerarik eman, Osakidetzak ez baitu honelako kasuetarako tratamendu-protokolorik, “leungarria” salbu, baina, bai kontrara, medikuntza pribatuak, Gasteizen, eta hara joan ginen, geure azkeneko esperantzan. Ebakuntzak 17 miloi pezeta balio zituen eta, beraz, kreditu bat eskatu behar izan genuen.

Josebak ebakuntza jasan eta bere biziaren alde borroka egin zuen, familia eta lagunen laguntzarekin bat. Gogor ahalegindu bazen ere, bere irribarra (egoera hain latz hauetan ere beti presente) 2004ko azaroaren 19an amaturatu zen. Beti alai eta irribartsu gogoratuko dugu.

Ebakuntzari dagokionez, Segurtasun Segurantzak finantzatu egiten du Espainiar estatuko beste erkidego batzuetan, baina Osakidetzak ez zigen aukera hau eman, diagnostikoaren berandutzaren ondorioz Josebaren egoera txarragoa zela jakin arren.

Orain, Josebaren bizia salbatu nahian hartu genuen zorra kitatuta dagoela jakinarazi nahi dizuegu. Eta hau posible izan da Gorliz, Plentzia, Bermeo, Mungia, Erromo, Bilbo eta hainbat lekututako lagun guztioi esker... ezagun zein ezezagunak... hainbeste izan zarete ze hainbat orrialdetan ere ez lirateke zeuen izenak sartuko. Zeuei eman nahi dizkiezuegu gure eskerrik zintzoenak, benetan.

Eskerrik asko, gora Matrako eta zuek ere bai.

Matrakoren Senideak

[irudia]



SOPELA, 2007KO URRIAK 12

Ikusteko moduak / Errazena litzateke trafiko seinalearen egoera kaxkarra salatzea. Zenbat denbora egon da horrela? Zergatik agintariak ez dira segituan seinalea bere onera ekartzeko gauza izan? Guri berriz beste zeozer eragiten digu irudiak, esaterako, auto istripu bat baino gehiago, metalaren ahuldadea sentitzen dugu, udazkeneko tenperatura epelek metal multzo gogor hori urtzeko daukaten gaitasuna; eskultura “bigun” bat ikusten dugu. / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Sua falta zaigu



Katixa Agirregaz lotuko gara bere ipuin liburuaz berba egiteko. Irakurri baduzu edo gogoz bazabiltza animatu! Urriaren 25ean, eguena, arrastiko 20:00etan, Villamonten izango gara.



Uribe Kostako Irakurzaileen Txokoa



erabil

BERBALAGUNAN JENDE BERRIA EZAGUTUKO DUZU EUSKARAZ, EUSKALDUNIA BAZARA LAGUNDU GETHOKO EUSKALDUNON SAREA ZABALTZEN ETA IKASTEN ARI BAZARA KALEA ATENA ZEURE EUSKARA. IZENA EMAN URRIAN ZEHARI 619 935 541 | BIZIAGETIA@YAHOO.COM | BLOGARI.NET/IZAZU

egizul

AARLOKUTZENEGAR

SHOLGAR

Getxo



[orain]

ASERIBITXKA



[lehen]

KULTUR LEOA

Iraganez doa denbora* beti / LAMIAKO

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > hiru hankaren hiru istorio



Algortako Urgul kalea

Testua: **Xa2 Paya /** Argazkia: **Asier Mentxaka**

Hanka sartu ote nuen
duda daukat oraindik,
mina zapaldu izanaz
nik ez nuen errurik!
Azken aldian ez zeukan
ez hanka ez bururik,
esaten zuen "hanka bat
zeruan dut jadanik"...
Gaur hemen esnatu naute
antzerako lagun bik:
behin hanka egin ninduen
orain hanka egin dit.

Niri atzo egin zidan
azken agur beroa:
poltsa batean itotzen
saiatu zen, eroa!
Nekosoa egin zaio
hankaren endredoa,
erosotasun betean
bizi nahi du geroa!
Nirekin emanagatik
pauso sendo mordo
bizitza orain harentzat
gurpil gainean doa.

Ni ortopedistak bota
ninduen hona, kanka!
Bere erakuslehoan
eman arren xarmanta,
eroslerik ez zetorren,
ezin zuen aguanta
eta merkaturik eza
izan zen azken tanta.
Hankaondo orok badu
hezur-mamizko hanka,
zaborretan amaitzea
bai destinu galanta!

* Doinua: Gai horrek badu mamia



BASALBO BASERRIA
JATETXEA

MARTITURRI ESTARTA 18 / 48993 ANDRA MARI - GETXO
TEL./FAX: 94 491 34 91 / BASALBOBASERRIA@YAHOO.COM

Koska Irratia > denboraldi berria abian



Koska Irratiaren programazio berria

Koska Irratia Uribe Kostako komunikabide askeak, denboraldi berriari hasiera eman dio. Aurreko urteko ez gain, hiru irrati saio berri izango dira aurtun. Astelehenetan, *The Postman* literatura saioaz gozatzeko aukera egongo da gaueko 9etatik 10etara. Honez gain, *Presoak SOS* Euskal Preso Politikoen inguruko albiste berezia entzun ahal izango da ostegunero, gaueko 10etatik 11etara. Asteari amaiera emateko, *Oinak Errez* musika saioa eskainiko dute bazkalostean. FMko 108.0an kontrainformazioa lantzen jarraitzeko asmoa dutela aurreratu digute Koska Irratiko lagunek. Gainera, www.koskairratia.com web orrian, irratia zein eskualdeko kolektibo eta ekitaldien bideoak eta informazioa eskegitzen jarraituko dute. Ateak eta mikrofonoak zabalik daude parte hartu nahi duen edonorentzat. ○

Harremanetarako: koskairratia@koskairratia.com

bisitak > bisita gidatu antzeztuak egin dituzte Galeako Gotorlekuan



Getxo, itsasadarreko zelataria eta zaintzailea erakusteta ere ipini dute Algortako Kultur Etxean

Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, Galeako Gotorlekura bisita gidatuak egin dira urriko lehenengo bi asteburuetan. Hauekin, herritarrek *“gotorleku nabarmenaren historia, erabilerak eta aldaketak hurbiletik ezagutzea”* eta *“guztionez izatera eta oroimena gordetzen saiatzea”* bilatu da. Bisitak euskaraz zein gazteleraz izan dira eta ordu beteko iraupena izan dute. Bisita egunetan bertan, *“Getxo, itsasadarreko zelataria eta zaintzailea”* erakusketa egon da ikusgai. Hau Algortako Kultur Aretoan egongo da urriaren 17tik azaroaren 5a arte. Ondoren, Erromoko Kultur Etxera eramango dute. Galeako Gotorlekuaz gain, Lekeitioko Erdi Aroko harresia, Serantes mendiko gotorlekua eta Bilboko Burdinazko Hesia bisitatzeko aukera egon da jardunaldien barruan. ○

saiazgetaria



HOTELA

Roke Deuna 25
280808 Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaia...



...itsasoa

www.siazgetaria.com / info@siazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

ikastaroa > kajoi flamenko ikastaroa Etorkizunako lokaletan



Kajoi flamenko ikastaroko lagunak

Pasa den urtean izan zuen arrakasta ikusita, kajoi flamenko ikastaroa berriz antolatzea erabaki zuen Carlos Galanek. Dagoeneko 9 pertsona ari dira parte hartzen Ander Sanchez bilbotarrak ostiralero, arratsaldeko 7etatik 9tara, ematen dituen eskoletan. Hala ere, izena emateko epea zabalik dago oraindik eta perkusio flamenkoan murgildu nahi duenak Etorkizunak Basagoiti kalean dituen lokaletara hurbiltzea besterik ez dauka. Carlosek eta Anderrek jarriko dute beharrezkoa den materiala. Hasiberrientzako ikastaroa da, adin guztietako jendearentzat zabalik dagoena: *“Aurten 8 urteko neska bat hasi da, baita 50 urte inguruko bikote bat ere”*. Antolatzailerak pozik daude jendearen erantzunarekin: *“Adin guztietako jendeak parte hartzeak giro polita sortzeko aukera eman digu. Pasa den urtean egondako guztiek errepikatu dute aurten eta horrek gustuna daudela esan nahi du”*. Ikasturte amaieran ikasitakoaren erakustaldi bat emateko asmoa daukatela aurreratu digute. ○

mankomunitatea > Hiri debekatuaren mapa sortzeko tailerrak



Genero ikuspegitik herrien “puntu ahulak” identifikatzea da helburua

Uribe Kostako Mankomunitateak, *Hiri debekatuaren mapa* sortzeko tailerrak antolatu ditu azarorako. Hauekin, Uribe Kostako Mankomunitatea osatzen duten herrien (Barrika, Berango, Gorliz, Lemoiz, Plentzia, Sopela eta Urduliz) analisia egin gura da, genero ikuspegi batetik. Mugikortasuna, segurtasuna, bizikidetza... hainbat aspektu aztertuko dira herrien *“puntu ahulak”* identifikatzeko asmoz. Tailerrak azaroko bi asteburutan izango dira, bariku arratsaldean eta zapatu goizean. 18 eta 70 urte bitarteko emakumeek hartu ahal izango dute parte. Datak eta tokia zehazteke daude oraindik. Parte hartu nahi duenak, 94 676 26 74 telefonora deitu edo berdintasuna@uribekosta.org eta agenda@uribekosta.org helbideetara idatz dezake. ○



“Zoriontasunaren sekretua ez datza gura duzuna egitean; egiten duzuna maitatzean baizik”, dio Antonio Vazquezek

Antonio Vazquez Borlas > Algortako Etorbideko zapataria

“Kolpe, kolpe, kolpeka, josi eta josi, bi zapata”, abesti zaharrak dioen moduan ibiltzen da Antonio Vazquez goiz eta arratsalde. Gaztea da oraindik (40 urte ditu) ogibide zaharra duen arren. Algortan hazi eta hezi da, gaur egun Sopelan bizi bada ere: *“Etxebizitzaren prezio altuek bota ninduten Algortatik”*. 15 urte pasa dira oinetakoak konpontzen hasi zenetik: *“Aita laguntzen nuen eta bera hil zenean familia aurrera ateratzeko lan egin behar izan nuen”*. Dendak 50 urte inguru daramatza martxan: *“Nire aitak El Andaluz deitzen zuten gizon bati erosi zion”*. Lana gustuko duen galdetzean, lantegiko horman idatzita duen esaldi batekin erantzun digu: *“Zoriontasunaren sekretua ez datza gura duzuna egitean; egiten duzuna maitatzean baizik”*. Ez zuen uste zapataria izango zenik: *“Nire aitari ez nintzela sekula zapataria izango esaten nion”*. Lan egiteko era aldatu dela onartzen duen arren, gauza batzuk lehengo eran egitea nahiago duela aitortu digu: *“Nahiko abila naiz eskulanetan”*. Moda aldaketek eta garaiiko egoera ekonomikoak eragiten dute zapatariaren lanean: *“Krisi garaian jende gehiago etortzen da”*. Ez du uste bere ogibideak etorkizun handirik daukanik: *“Ez ditut nire seme-alabak honetan ikusten; hala ere, gure lana beharrezkoa da oraindik”*. Lanetik irtendakoan, Sopelako hondartzara hurbiltzen da *Borlas*, olatu gainean jolasteko. Surf epailea izandakoa ere bada. Txapelketak eta olatuak hurbiletik jarraitzen ditu oraindik; izan ere, surflari on bezala, itsasoa darama bihotzean. ○

Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Maitane Nerekan**

Euskararen gainekeo iritzi bila

Lau urteko epean garatzeko prestatu zuten **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia** aurten amaitzen da eta **egitasmo berria** moldatu baino lehenago **egindakoaren gainekeo ebaluazioa** egin dute

Aurten amaitzen da Getxoko Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiak batzen zituen lan ildoak garatzeko epea. Hala, Udaleko Euskara Zerbitzutik jakinarazi dutenez, **“2008-2011 urteetarako plan berria martxan ipini aurretik, aurreko planaren ebaluazioa egin dugu: ebaluazio kuantitatiboa eta ebaluazio kualitatiboa”**.

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN) *“hizkuntzaren normalizazioa eta gizarte esparru guztietan enabateko erabilera lortzeko plan estrategiko”* legez ipini du martxan Eusko Jaurlaritzak. EBPNaren helburu nagusia *“euskarak bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzea”* ei da. Hala, gaur egun 60 udalerri baino gehiagok ipini dituzte martxan lekuan lekuko EBPNak.

Getxon 2003an ipini zuen abian Udalak lau urterako EBPN. Hala, aurten amaitzen da plana eta Udaleko Euskara Zerbitzutik azaldu dutenez, hurrengo lau urteetarako egitasmo berria gauzatzen hasi baino lehen orain arteko lanaren ebaluazioa egin gura izan dute. Lau urteotan esparru guztietan euskara normalizatzeko jarduerak antolatu dituztela adierazi dute arduradunek: irakaskuntzan, euskalduntze-alfabetatzean, etorkinakaz, familian, merkataritzan, ume eta gazteen aisialdian, kulturean, kirolean, komunikabideetan...

EBPNren ebaluazioa bi ikuspuntutik egin dute, kuantitatibotik eta kualitatibotik. Lehenengoari dagokionez, hurrengo datuak plazaratu dituzte: *“orain 5 urte 217 ekintza zehatz markatu ziren planak dituen*



Gizarte esparru guztietan euskararen erabateko erabilera lortzea da plan honen helburua

hiru helburu estrategikoak lortze aldera. Ekintza kopuru horretatik 174 egin dira (horien artean batzuk ez zeuden aurreikusita eta gerora gehitu ziren) eta, beraz, planaren betetzeko maila %81ekoa izan da”. Bigarren ebaluazio-ikuspuntuaren gainean, Euskara Zerbitzuak bilerak egin ditu ikastetxe, Guraso elkarte eta euskaltegiak ardura-dunakaz, eta inkestak eta galdegiteak egin

«Euskararen iritzi-ontzia ipiniko dute udalerriko bi plazatan herritarren iritzia ezagutzeko

dizkie elkargintzan, kirol taldeetan eta merkataritzan dihardutenei. Datu horiekaz batera euskarak Getxon bizi duen egoeran diagnostikoa ere egin dute, eta ondorengo ondorioetara heldu dira: Getxon 19.000 lagun baino gehiagok dakite euska-

raz; bost establezimendutatik batean euskara erabiltzen dute atean, errotuluan edo erakusleihoan; etorkinentzako AISA ikastaroetan 200 lagunetik gora ibili dira euskara ikasten.

Amaitzeko, azaldutako guztia gizarteratzeko asmoz eta herritarren iritziak ezagutzeko eta jasotzeko Euskara Zerbitzuak “Euskararen iritzi-ontzia” ipiniko du udalerriko bi plazatan. ○

Iritzi-ontziak

- **Algortako Geltoki plazan:**
Hilak 18. 19:00-20:00.
Hilak 19. 17:00-20:00.
Hilak 20. 11:00-14:00 eta 19:00-21:00.
- **Areetako Xake plaza:**
Hilak 25. 17:00-20:00.
Hilak 18. 17:00-20:00.
Hilak 18. 11:00-14:00 eta 17:00-21:00

HAPOren berrazterketa

onartu du **Tokiko Gobernu Batzordeak**



Berrazterketa amaitzerakoan, etorkizuneko Getxo marraztuko duen hiri planeamendu berri bat osatuko lukete.

Hiri Antolaketa Plangintza Orokorren (HAPO) berrazterketa onartu du Tokiko Gobernu Batzordeak (EAJko kidez osatua). Udalbatzara eroan barik onartu da berrazterketa, izan ere, iragarri ei zuten PP eta PSE alderdiek Udabaltzan ezezkoa emateko asmoa zuten. HAPOren berrazterketa prozesua hurrengoan datza: 2001etik indarrean dagoen plana berrikustea eta indarrean dagoen legedira (EAEko Lurzoruaren legea; Bilbo Metropolitano Lurraldeko Zati-Plana -LZP- eta Espainiako Lurzoruaren legea) egokitzea. Berrazterketa amaitzerakoan, etorkizuneko Getxo marraztuko duen hiri planeamendu berri bat osatuko lukete.

“Ahalik eta herritar gehienen partaidetzagaz eta adostasun handienagaz ahal den Getxorik hoberena diseinatzea da gakoa HAPOren berraz-

terketaren hasierari aurre egiteko”, Udaleko Gobernu Taldearen esanetan. *“Pauso honegaz etorkizuneko Getxo zehaztuko duen planeamendu urbanistikoa argituko duen prozesua martxan jartzen da legalki”*, adierazi du Getxoko alkate Imanol Landak. Gobernu Taldeak adierazi dutenez Batzorde Aholkulari bat osatzen dihardute dagoeneko, bertan alor ezberdinetako herriko elkarteek (auzokideak, ekologistak, gazteak, emakumeak, enpresariak, merkatariak...) parte hartuko dute. HAPOren aldaketaren Informazio Batzorde Berezia ere martxan ipiniko dutela jakinarazi dute (horretan Andra Mariko auzokideen elkarteak egongo dira).

Imanol Landaren iritzi, oposizio alderdiek kontu honi emandako ezezkoaren zergatia da *“LZPren kontrako mozioa aurkezteko adostasuna eta alderdikeria lehenetsi dutela”*. ○

KABLE BAKO SARERAKO KONEXIO ESKAINTZA EZTABAIDATZEN DABILTZA

Getxoko Udala klabe bako sarerako konexioa eskaintzea aztertzen dabil. Interneterako kable bako sarrera udal eraikinetatik eta hainbat plazatatik egin ahal izango litzateke. WIFI sare bat ipiniko lukete eta Udaleko webgunera kable barik eta doan sartu ahal izango litzateke. Sistemak interneterako sarrera “koste baxuan” bermatuko ei luke, udal eraikinetatik eta leku publikoetatik, eta sarrera bonuak salgai ipiniko litzukete.

DROGOMENPEKOTASUN ARRISKUA GUTXITZEKO PLANGINTZA

Getxoko Udal Gobernu Batzordeak “Menpekotasuna sortzen duten gaien kontsumo okerra aurrezaintzeko programa” martxan ipintzeko asmoa dauka. Drogen eta alkoholaren kontsumoak gazteengan sor ditzaketen arriskuak gutxitzea edo desagerraraztea helburu duen programaren ardura laster esleituko du Udalak, eta horretara 30.000 euro bideratuko dituzte. Programa 15-24 urte bitarteko gazteei zuzenduta dago eta urte bateko iraupena edukiko du gutxienez. Getxoko alkate Imanol Landak adierazi duenez: *“aurkituko dituzten arrisku egoerei, hala nola, droga menpekotasunari, neurri gabeko sexu harremanei eta ibilgailuak erabiltzeari, aurre egiteko baliabideak eman nahi dizkiegu gazteei; ez zaie heziketa ikastarorik ezta hitzaldirik ere eskainiko horretarako, beste baliabide batzuk erabiliko dira”*.

AREETAKO XAKE PLAZA BERRALDATUKO DUTE

Erromo eta Areeta lotzen dituen plaza, Xake edo Geltoki plaza deitua, berriro ere aldatuko dute. PP eta PSEren mozioak aurrera egin du eta onartu egin dute plaza berr moldatzea. 2000an amaitu ziren plaza berrantontzeko lanak eta 4 milioi euro gastatu zituen Udalak horretarako. Orain ikusteko dago zelan berrantolatuko duten.

Julen Billelabeitia > txistularia

“Gu gara txistuaren kondairan zati bat, ahalegindu gara hori zentzunaz betetzen”



Billelabeitiari egingo dioten gorazarrea 9:00etan hasiko da Getxoko Malakate plazan

Julen Billelabeitia (Mungia, 1929) 8 urte gaz etorri zen Getxora bizitzera. 50 urte baino gehiago eman dute bere ezpaineak txistuari lotuta. 27 urte gaz egin zuen bere txistulari bateoa, “Santiago egunean, lehenengo paella eguna ospatzen zela, 1956an”. Hilaren 27an Txistularien elkarteak eta bera ibili den hainbat taldek gorazarrea egingo diote Getxon.

—Noiz hasi zinen txistua jotzen?

—Normalean izaten da gaztetxu zarenean, baina ni oso berandu hasi nintzen, 25 urte-gaz edo. Laster dei egin zidaten Algortako Itxasgane taldekoek eta 10 urte inguru egon nintzen; gero ezkondu eta behin ezkonduz gero beste ardura batzuk sortzen dira! Eta utzi nuen, baina ordezkoa bere utzi nuen, Jabi Elizondo, nire lehenengo ikaslea. Lehenengo pausoak Gerardo Zubillagagaz eman nituen eta beste maila batean, nire maisua Juan Atxurra izan zen, biak herriko txistulariak. Eskolak etxeetan emoten genituen, orduko denboratan ez zegoen eskolarik. Hemendik neu hasi nintzen eskolak emoten, Itxar-Argiaren aurretik Itxasganen,

eta hortik irten zen Elizondo. 1970ean sortu genuen Uribe Aldeko Txistulari Batza eta hor emon nituen 35-37 urte arduradun moduen; hori utzi genuen orain urte bi, azkenengo pausoak narras eta irudi txarra emoteko hobe zen amaitzea. Egiten ditugu gauza batzuk, baina konpromiso barik. —Eta lehenengo txistuaz akordatzan zara? —Lehenengo txistua eta bakarra da; hau da ezkontzan legez: hartu eta alkarregaz betiko, 50 urte luzetan erabili dut. Danbolina zahartuta dago, eta apur bat baztertuta daukat, baina txistua sendo dago oraindino! —Gaur egun txistulariak diferenteak dira? —Neuretzat bai. Lehen ibiltzen zen beste gogo bategaz. Urteak joan urteak etorri, gu

barik, herria bere joan da aldatzen. Gu izan gara txistuaren kondairan zati bat, eta ahalegin guztiak egin ditugu zati hori betetzeko zentzunaz. Mendira joaten ginenean bere, txistua eroaten nuen kolkotan; txistua menditik jotzen, betiko soinuak, eta batzuetan karraderan irten behar! Ze agertzen ziren orduko *trikornioak* eta... Pozik nago, uste dut ahalegin guztiak egin ditudala txistuari emon-teko merezi duen maila, irudia.

—Entzunez ala partituragaz jozen duzu?

—Guk dana partiturakaz. Ez nekien asko, apurtxu bat, elizan bere abeslari izan naiz eta hortik baneukan ideiarenean bat. Gero lantegitik irten, Erandiotik Getxora bazkaltzen

«Lehenengo txistua eta bakarra da hau, 50 urte luzetan erabili dut»

karraderan, eta trenak emoten zituen 20 minututan baztertxu batean jesarri eta atera “*Metodo. Solfeo de los solfeos*”, oso ezaguna izan zen, eta handik ikasten nuen egunero. Horrek izan ziren oinarriak, gero nire kontura ikasi nuen apurka-apurka irakurrita.

—Gorazarrea dela eta, zelan sentitzen zara?

—Nago urduri honezkero. Gauza tristeak eta saminak heltzen direnean bere, nahiz eta harri legez eduki bihotza bigundu egiten zaizu. Eta poztasuna halako neurrikoa denean bere berdin. Ez dut sekula pentsatu horrelakorik neuretzat izango zenik, ze nik gauzak beti egin ditut bokazinoagatik, nire atseginekoak izan direlako. Eta hartzen badituzu beharrezkoak eta berezkoak direlako gero ez zara gogoratzen hainbeste egin dituzula. Baina gero beste batzuek gogoratzen zaituzte! Benetan, pozik nau! Niri emoten dit larregi dela, talde denak batera... Ez dakit ba ez banaizen hasiko dardaraka, odola pil-pilean, bihotza dingili-dangala... ○

Mikologia jardunaldiak

Hilaren akabuan zenbait hitzaldi eta erakusketa antolatuko ditu Basozaleak elkarteak



“Mikologia iraunkor baterako” lema izango dute aurtengo Jardunaldiek

Urtero legez, Jardunaldi Mikologikoak pres-tatu dituzte Basozaleak elkarteak kideek hil amaierarako. XVII. edizioa beteko dute aurt-en jardunaldiok eta hiru bat hitzaldi eta irteera, era-kusketa, dastaketa eta lehiaketa bana iragartzen ditu egitarauak.

Gaur egun Basozaleak izenagaz ezagutzen badugu ere, deitura hori 2000an ipini zioten elkarteari. Hori baino lehenago Getxoko Elkarte Mikologikoa (Sociedad Micológica de Getxo) zuen izena 1988an Erromo aldean sortu zen taldeak.

Aurtengo Jardunaldiak “Mikologia iraun-kor baterako” (Para una micología sostenible)

lemapean garatuko dira eta, hurrenez hurren (aldaketarik ezean), hurrengoak dira iragarri dituzten jarduerak: “Biodiversidad y conserva-ción de los hongos. Especies amenazadas” hi-tzaldia (hilak 22, 19:30; Villamonte); “Afición micológica y sostenibilidad” berbaldia (hilak 24; 19:30; Villamonte); irteera (hilak 27) perretxi-koak batzeko hurrengo eguneko erakusketa eta dastaketa zein lehiaketarako (hilak 28, 11:00-14:00; San Nikolas plaza) eta amaitzeko “Las setas de cultivo en la cocina” solasaldia (hilak 29, Alday Patronatoa, Karidade 1, Algorta). ○

Informazio gehiago: www.basozaleak.com edo basozaleak@basozaleak.com

ABESBATZAK PROTAGONISTA HIL AKABUAN

XXVII. Aste Korala antolatu dute, urtero legez, eta aurt-en hil amaieran izango dira emanaldiak. Hurrengo taldeek eskainiko dituzte kontzertuak, hurrenez hurren: Ensemble Singers (Singapur; hilak 29, 19:30; Getxo Antzokia), Khmelnitsky Chamber Choir (Ukrania; hilak 30, 19:30; Getxo Antzokia), Sine Nomine (Kuba; hilak 31, 19:30; Getxo Antzokia); Ondarreta abesbatza (Getxo; azaroak 1, 19:30; Getxo Antzokian). Gonbidapen sarrerak hilaren 22tik aurrera jaso daitezke Getxoko kultur etxeetan.

LAURA HIDALGO KUBATARRAREN MARGOAK GALEAKO AIXERROTAN

Laura Hidalgo Craber (Habana, Kuba, 1978) artistaren “Desde Adentro” (Barrutik) margo erakusketa ikusgai egongo da Galeako Aixerrota erakustaretoan hilaren 25etik azaroaren 7ra (13:00-19:00). Olioek eta grabatuek edota litografiak osatzen dute lan hau. Dagoeneko ibilbide luzea egin duen artista da kubatarra, bai bere jaioterrian, bai hemen egindako hamaika erakusketa dira horren adierazgarri.

EUSKAL KANTA ETA DANTZAK ZEIN BERTSULARITZA IKASI-KO DUTE 2.366 IKASLEK

Udalerriko zenbait ikastetxetan, urtero legez, hasi dira ikasleak bert-solaritza, euskal kantak eta euskal dantzak ikasten. Hala, dantza eskoletan 1.595 ikasle eman dute izena, euskal kantuetara ia 400 ikasle bertaratu dira eta bert-solaritza ikasiko dute 372 gaztek (lehenengo aldiz DBHn ere emango dira eskolak). Bejondeiela!



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • ALGORTA

Igor Erauzkin eta Miren Barrutia > sexologoak eta Biko Arloa Elkarteko kideak

“Sexualitatean egiten diren esku-hartzeak nerabe aroan egiten dira; hortik aurrera finkaturik gaude”

Aterpe Gazte Bulegoak aholkularitza sexologikoa eskaintzen du Biko Arloa Elkartearen ekimenez. Zerbitzua urriaren 25ean hasiko da eta hamabost egunean behin izango da. Aholkularitzak gazteak izango ditu oinarri, baina haiek inguratzen dituzten pertsonai (gurasoak, irakasleak...) ere zuzendua dago. Igor Erauzkin eta Miren Barrutia Biko Arloko kideek azaldu dutenez, herriarentzako errekurtsoa izatea dute helburu.

—Zer da sexua?
—Sexua, azken finean, gizon eta emakume izatea da eta izate hori jaiotzatik hil arte erai-
kitzen da. Eraikitze horretan aldaketa batzuk
daude: bakoitzak izate hori bere erara bizi
du, eta bizitze horren inguruan daude adie-
razteko moduak. Adierazteko moduaren
arabera erlazionatzen da beste pertsonagaz.
Hau da, sexua gizon-emakumea izatea da,
baina azpitik sexualitate kontzeptua dago:
nola bizi dudan nik neure sexua, nola adie-
razten dudan berau eta azkenik, adierazte
horretan nola erlazionatzen naizen. Bizitza
osoko prozesua da.
—Zertan datza aholkularitza?
—Aholkularitza da pertsona bati laguntza



Argazkian, Miren Barrutia eta Igor Erauzkin

ematea bere bizitza prozesuan datozen zail-
tasunetan. Euren kabuz bidea topatzea da
helburua, eta bide horretan ondoan egotea.
Aholkularitza soila errekurtsio bat da, baina
askotan zaila da aholkularitzaren ideiak ero-
atea: heziketaren osagarria da.
—Gazteak zein gurasoak informaturik al
daude?
—Informazio pilo bat dago eta leku askota-
tik lor daitekeen kontua da. Aspaldian hel-
burua izan zen informazio hutsa emotea.
Gaur egun berriz, hainbeste informazio

daukagunez ez dakigu zer egin. Informazioa
edukitzea garrantzitsua da oso, baina ez ba-
dakigu horregaz zer egin, ez goaz inora:
informazioa ez edukitzearen modukoa da.
Gakoa da informazioa nola erabili.
—Zeintzuk dira gazteen kezka nagusiak?
—Gehienetan euren kezka oso ginekologi-
koak dira, nahiz eta harremanean nola egi-
ten den galdetzeraz datorren jendea egon.
Zenbait maitasun kontuekin dator. Eta
azkenik, zailtasunak dituztenek ere galderak
egiten dituzte. ○

Komisaria handiagoa

Hirigintza sailaren toki aldaketa dela eta, Udaltzaingoak komisaria handituko du



Udaltzainen kopurua ere handitu egin da, aurten 30 udaltzain berri daude Leioan

Leioako Udaltzaingoak daukan espazioa bikoiztuko du Hirigintza sailaren tokialdake-
tari esker. Modu honetan, beheko solairu osoa udaltzainek hartuko dute. Aurreratu dutenez, eraikin osoa barrutik berreraikiko dute eta minusbaliatuei sarrera egokitzearen legea bete-
ko du.
Polizia-etxea txikia eta zaharkituta geratu dela adierazi dute udaltzainek. Beraien ustez, populazioaren hazkundearekin batera, komi-
sariaren handitzea gertatu behar da. Gogoratu dutenez, udaltzainen kopurua ere handitu egin da aurten, 30 udaltzain gehiago baitaude.
Bestalde, Hirigintza saila Errekalde kaleko

jubilatuaren etxearen ondoan aurkitzen diren lokaletara pasatuko da. Lokal hauetan bulego berriak egin dituzte eta dagoeneko sistema informatikoa ezartzea bakarrik falta da.
Orotara zortzi bulego dira eta guztien artean 1.000 metro koadro osatzen dituzte. Instalazio berri hauek bulegoak edukitzeaz aparte, biltegi bat eta zenbait egongela ere badituzte.
Esan beharra dago aipatutako bulegoak eraikitzeak 412.112 euro baino gehiago kos-
tatu zaiola Leioako udalari. Horretaz aparte, udalak 111.302 euro gehiago gastatu ditu bu-
legoak apaintzeko. ○

INGLATERRAN EGINDAKO PELIKULAK EMANGO DITU KULTUR LEIOAK

Kultur Leioak Ingalaterran ekoiztutako pelikulak martitzenetan proiektatzen hasi da horrela zineforumaren ziklo berri bati hasiera emanez. Urriaren 16an *The Queen* pelikula egongo da ikusgai; urriaren 23an berriz, *El buen ladrón*; eta azkenik, 30ean *Breaking and entering* pelikula proiektatuko dute. Pelikula hauen guztien sarrerek bi euro balio dute, gaztelanieraz dira eta 20:00etan hasiko dira. Baina zineforumaz gain, bestelako zinema ere egongo da, haur-zinea esaterako. Urriaren 20 eta 21ean *Los Simpson* pelikula ikusteko aukera egongo da, eta 28an, *Harry Potter y la orden del Fenix*. Pelikula hauen sarrerak lau euroan salduko dira.

SORMEN IKASTAROA ARNO ESTORNEN TEORIEI JARRAITUZ

Solasgunek sormenerako heziketa eta adierazpen tailerrak jarri ditu martxan. Ikastaro berri honek Arno Estornen teoriak izango ditu ardatz nagusi. Horren bitartez, ume eta helduek eredu ezberdinetatik, konparaketetatik eta lehiatik at ikasketak egiteko aukera edukiko dute. Ikastaroa Aldapan emango da.

SEXUAZ ETA EMAKUMEEN BIZITZA SEXUALAZ HITZ EGITEKO IKUSKIZUNA

Tantta antzerki taldeak *Mujeres en sus camas* lana antzeztuko du azaroaren 9an Leioako Auditoriumean. Eszenatokiaren gainean gizarte maila eta adin ezberdineko bost emakume sexuaz mintzatuko dira. Aldi berean, gizon batek paper ezberdinak antzeztuko ditu. Mireia Gabilondok zuzenduriko antzezlana da hau. Hitzordua gaueko 20:30ean izango da 12 euroren truke. Dudarik gabe denbora tarte ona pasatzeko antzerkia da.

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

ERROTULOAK

ERA GUZTIETAKO ERROTULOAK eta INPRESIO DIGITALAK egiten ditugu

BEST

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

BETIKO IKASTOLA

- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna

eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Pepin Carrera > eskultorea

“Eskulturaren mundua diru mordoaren atzetik dabilzan lau gaizkileen arteko kontua da”

Oso ezagunak egiten zaizkigu Oteiza edota Chillida bezalako izenak. Baina horietaz aparte, horiek beste onarpena merezi duten eskultoreak ere baditugu geure artean, Pepin Carrera bezalako artista adibidez. Pepin 72 urteko eskultorea da eta bere lanak Erandioko Goierriko baserrian dauzka ikusgai. Berak aitortu duenez, oso haserre dago goiburuen erruz “alferrik galdutako” eskultorea baita.



Pepin Carrera bere lanez inguratuta

—Noiztik daramazu eskulturak egiten?
—Zaletasun honegaz jaio egiten zara: eskultorea ez da egiten, jaio egiten da. Esan dezaket bizitza osoa daramadala horretan. Txikia nintzela egun osoa buztina lantzen eta egurra zizelkatzen igarotzen nuen. Beti nengoen eskulanean bat egiten. Nire bizitza osoan zehar eskultorea izan naiz soilik; beharbada pintura ere zertxobait landu dut, baina eskultura da neurea.
—Behin eskulturak bukatuta, zer egiten duzu eurekaz?
—Eskulturak, batez ere, niretzat egiten ditut. Horrez gain, Larrea eta bestelako eskultoreek ez bezala, nik transzendenzia ematen diot garrantzi handia: asko kezkatzen nau hil ostean errekonozimendu

dua, onarpena edukitzea.
—Zer material lantzen duzu?
—Hasieran, eskulturak egiteko erabili den elementurik zaharrena lantzen nuen, hau da, buztina. Ondoren zura eta harria lantzeraz animatzen zara. Azkenik, eta diru nahikorik baldin baduzu, burdinagaz lan egitera pasatzen zara. Nik betidanik burdina izan dut gustukoen, beharbada haurtzaroko lagun bati esker. Gaur egun, gainera, teknika berriek ematen dituzten aukerak direla eta, oso gustura landu daiteke

material hori.
—Nola ikusten duzu eskulturaren egungo egoera?
—Eskulturaren mundua, gauza gehienetan bezala, diru mordoaren atzean dabilzan lau gaizkileen arteko kontua da. Bidegabekeria itzela da nik 72 urte edukita eta bizitza osoan lanean egon ostean, 400 euroko jubilazio pentsioa edukitzea. Beti egon dira botere publikoek babestutako eskultoreak, Bernini kasu; eta horiek baino hobeak direnak, baina ezagunak ez direnak, Mochi esaterako. O

Udal Musika Eskola

Musika-tresna ezberdinak jotzen ikasteko aukera ezin hobe



300 lagun dabilza musika ikasten Erandioko Udal Eskolan

Erandioko Udal Musika Eskolak oraindik dauzka leku libreak musika-tresna desberdinetan matrikula egiteko. Besteak beste, piano, gitarra, bibolina, biolontxelo, akordeoia, baxu eta gitarra elektrikoak, trikitixa eta panderoa jotzen ikas daiteke aipatutako musika eskolan.
Plaza guztiak bete arte erandioztarrentzat ez ezik, beste herriko ikasleentzat ere matrikula irekita egongo da. Instrumentu batzuetako matrikulak zabalik egon arren, aipatu beharra dago inoiz baino jende gehiago matrikulatu dela aurtengo ikasturtean: 300 ikasle inguru. Eskolak hiru mailatan banatuta daude adinaren arabera: lau eta sei urte bitartekoak; zazpi urtetik gorakoak (helduak barne); eta ezaguer

ra minimoa dutenak.
Musika-tresnak jotzen ikasteko klaseak emateaz gain, Erandioko Musika Eskolak talde lana gauzatzeko tailerrak ere antolatu ditu 2007-2008 ikasturteari begira. Horren adibide abesbatza, harizko orkestra, airezko musika-tresnen taldea, musika moderno taldeak, musika-mintzaira etab. luzea dugu.
Erandioko Musika Eskolak 1974. urtean hasi zuen bere ibilbide luzea. Bi hamarkada beranduago, 96-97 ikasturtean Udal Musika Eskola bezala sendotu zen. Eskolak Altzagan eta Astrabuduan ditu gelak, Desanexio kalean eta Josu Murueta Kultur Etxean, hurrenez hurren. O

Informazio gehiago: 94 417 07 06

GORREN BIZI KALITATEA HOBETZEKO PLANA ONARTU DUTE

Gorak eta entzumen arazoak dituzten pertsonen beharrianen azterketa egitea erabaki du udalak. Honen bidez, minusbalotasun hau pairatzen duten 450 erandioztarren bizi kalitatea hobetzeko plana aurrera eroan nahi du. Udaleko zerbitzuetan oztopoak kendu eta euren autonomia handitzearen alde egiteko lana da hau, etxebizitza euren beharrianei egokituz, adibidez.

IRAKURKETA BULTZATZEKO JARDUERAK IZANGO DIRA

Urriaren 24an liburutegi-karpa bat instalatuko da Irailaren 23a plazan eta 11:00etatik 13:30era eta 16:30etik 19:30era egongo da zabalik. Urriaren 29an, berriz, idatzizko istorioak emango dira errimadun hitzekin egindako jolasak abiapuntu hartuta. Helburua poesia era dibertigarri eta errazean lantzea da. Errimak elkarri lotzen joango dira, hari eta liburutegian gora igoko den landare igokari bat eratu arte. Plazak kopuru mugatua du eta horrenbestez, bertan parte hartzeko alde zuretzat izena eman beharra dago udal liburutegietan. Jarduera hori 8-12 urte bitarteko umeei zuzenduta dago eta Josu Murueta Kultur Etxean izango da.

ATZERATU DA DORRETXEAREN BERRESKURATZEA

Nahiz eta 1995. urtean Martiartuko dorretxea kultur ondaretzat izendatu eta erabilera kulturalerako dorrea berreskuratze proiektua onartuta egon, atzeratu dira berreskuraketa lanak. Udalak lanen kostu handia argudiatu eta beste lehentasun batzuk dituela esan du. Aldi berean, Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza eskatu du horrenbesteko gastuei aurre egiteko.

moda gaztea
opariak

IRATI

Torre 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

LUBERRI
Basolanak S.L.

Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa
DEITU!

T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

Nahi duzun lekura iristeko arazoak dituzu?

Etxebizitetarako igogailuak
Eskailera igogailuak
Plataformak

Arazoei agur... **902 54 08 54**

www.arlan.biz

TAO-RI BURUZKO
EZOHICO BILERA EGITEKO
PREST DAGO ALKATEA

Sopelako alkate Imanol Garai prest da TAOri buruzko bilera “monografikoa edota ezohikoa” egiteko udaleko talde politiko guztiekin. Garairen arabera, gaia ez da udal bilkuran aztertu “TAO kentzea eskatu duten udal taldeek ez dutelako eskari formalik egin”. Hala ere, bere taldea gaia aztertu eta gehiengoak nahi badu TAO kentzeko “prest dela” adierazi du. Ordaindutako aparkalekuak kentzeko egun zehatza “akordioaren bidez gehiengoak erabaki behar duela” esan du.

HAINBAT KIROL EKINTZA
GARATZEKO ASTEBURU
GAZTEA ANTOLATU DUTE

Sopelako Udalak eta Barrika Surf Camp-ek Asteburu Gaztea ekimena antolatu dute urriaren 19, 20 eta 21ean edo 26, 27 eta 28an udalerriko gazteek Uribe Kostako inguruetan hainbat kirol ekintzak gara ditzaten. Lehenengo egunean, barikuan, bizikletaz ibiliko dira Uribe Kostako labarretatik. Afaldu ostean, parte hartzaileek Barrika Surf Camp-eko instalazioetan lo egingo dute. Zapatuan berriz, surf ikastaroa izango da Quiksilver Surf Eskolaren eskutik. Ondoren eta eguraldiak laguntzen badu, piraguismoa praktikatuko dute Plentzian. Eta bukatzeko, domekan, Urdulizko haitzetan eskalatzeko aukera egongo da.

DIDAK

hamilton

IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
 - Maila guztiak
- Ingelesa 3 urtetik aurrera
 - Talde txikiak
- Ingalaterran eta Estatu Batuetan egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.

Tel: 94 676 30 12

info@didakhamilton.com

Janari-erabiltzaile karneta
Merkatari, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak
karneta eskuratzeko ikastaroa antolatu du

Arrisku handiko eta txikiko mailak ezberdinduko dira ikastaroetan

Sopelako Merkatar, Ostalaritza eta Zerbitzuen Elkarteak Janari-Erabiltzaile karneta lortzeko ikastaroa antolatu du, bi mailatan bereizita: Arrisku Handikoa eta Arrisku Txikikoa. Lehenengoa sukaldari zuzenduta dago, sei orduko ikastaroa da eta urriaren 22 eta 23an izango da, 17:15etik 20:15era, Udaletxeko Hall Kulturalean, 71 euroren truke.

Bigarrena berriz, arrisku txikikoa alegia, zerbitzari zuzenduta dago eta urriaren 24an izango da, arratsaldeko 17:15etik 20:15era, Sopelako Kultur Aretoan. Beste ikastaro

horren prezioa 51 eurokoa izango da.

Gainerako pertsonak ere izango dute hiru orduko azken mintegi hori egiteko aukera, baina hauen kasuan, ikastaroa urriaren 25ean egingo da, 14:00etatik 17:00etara Euskaltegian eta 51 euroko prezioa izango du.

Sopelako Udalak jakinarazi duenez, Janari-Erabiltzaile titulu ofiziala eskuratzeko argazki bat eta Espainiako Nortasun Agiria eroan beharko da halabeharrez. o

Informazio gehiago: 94 430 55 00

ANDER
DEVNA

IKASTOLA

- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. SOPELANA

Tfnoa.: 94 676 02 66 / Email.: sopela@ikastola.net

[sopelana]

Carolina Fernandez > Haur hezkuntzan diplomatua

“Haurtzaindegi gehienak asistentziakoak dira soilik; geure proiektua hori baino gehiago da”

Naiara Jimenezek, Nora Diezek eta Carolina Fernandezek haur eskola berria zabalduko dute Sopela eta inguruko udalerriko umeentzat. *Poz Pozik* Sipiri 26 kalean kokatuko da eta Carolina Fernandez arduradunak azpimarratu duenez, Eusko Jaurlaritzak mota hauetako ikastegiei ezarritako eskakizun berezi guztiak betetzen ditu. Bere esanetan, umeen entretenimendua bilatzeaz gain, heziketa ere bilatzen dute.

—Nola bururatu zitzaizuen haur eskola irekitzea?

—*Poz pozik* haur eskola daramagunok lau urte egin ditugu alkarregaz lanean beste haurtzaindegi batzuetan, eta urteen poderioz somatu dugu zerbitzu honen beharra bazegoela inguru honetan. Urte askotako esperientzia geureganatu ostean, geure kabuz horrelako proiektua aurrera eramateko gai garela ikusi dugu. Eredu eta funtzionamendu berria egin gura dugu haur eskola honetan.

—Zer eskaintzen duzue?

—Haurtzaindegi bat baino gehiago da honako hau. Bestelako funtzionamendua eskaintzen dugu. Adibidez, konfiantzan oinarrituriko eskola da gurea eta horregatik

Carolina fernandez, Naiara Jimenez eta Nora Diez

gurasoei eraikinean sartzen uzten diegu. Bestaldetik, umeentzako hezkuntza proiektu egonkorra daukagu, ez da umeak zaintzea bakarrik. Eskolak goizeko 7:00etatik 18:00etara zabalduko ditu ateak: B eredu, jantoki zerbitzua eta umeekin kanpoaldean ekintzak egiteko lekua eskaintzen du.

—Haurtzaindegi batekin alderatuz, zer ezberdintasun dauka eskolak?

—Ezberdintasunik handiena hezkuntza izango litzateke. Hau da, haurtzaindegi gehienak asistentzia hutsekoak dira: umeek

jolasten dute jolastu behar dutelako, ez dago inolako helbururik horren atzean. Gure ustez, eredu horri jarraiki umea aspertu egiten da. Guk umeen entretenimendua bilatzen dugu, baina aldi berean, heziketa ere bai.

—Nori zuzenduta dago *Poz pozik* haur eskola?

—4 hilabete eta 3 urte bitarteko Sopela eta inguruko haurrei. Gure ustez, arlo honetan hutsunerik handiena Berango eta Plentzia arteko herriek dute eta hauei zuzenduta dago gehienbat. o

LAIK
Taberna

Bentatxu, 2

48600 Sopela

Tlf. 94 676 03 28

EGUNKARIAK

prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero,
etxera eramaten dizugu
egunkaria!!!

Algortako etorbidea, 78

T.: 94 491 27 34

20 UK

UK 21

“KALE GORRITIK
ETXEBIZITZA GORRIRA”
EGIN NAHI DUTE GAZTEEK

Berangoko gazteek etxebizitza eskubidearen alde egiteko tresna berri bat jarri dute martxan: www.blogak.com/berangonbizi webgunea. Honen bidez, espekulatzailleen jarrera salatu eta gazteria etxebizitza eskubidearen alde mobilizatzeraz deitu nahi dute. Herriko bazter guztiak 589 zenbakiarekin beteaz hasi zuten “Kale gorritik etxebizitza gorrira” kanpaina, izan ere, hau da Berangon dauden etxebizitza hutsen kopurua. Blogaren bitartez, egingo dituzten ekintzen berri eman eta gazte berangoztarren iradokizunak jaso gura dituzte.

60 URTETIK
GORAKOENTZAKO
JARDUERAK MARTXAN

Hil honetan eman die hasiera Berangoko Udalak 60 urtetik gorakoei zuzendutako 2007-2008 ikasturteko jarduerari. Podologia eta ileapainketa zerbitzua kendu behar izan dituzte, baina ikasturtean zehar martxan jartzen ahaleginduko direla aurreratu dute udal-agintariek. Gimnasia, areto-dantzak, erlaxazio tailerra eta informatika tailerra izango dituzte aukeran Berangoko nagusiek. Honez gain, lege-aholkularitza dohainik emango zaie nahi duten guztiei. Ana Landa alkateak jardueretan parte hartzeko nagusien elkarteko bazkide izan beharrik ez dagoela adierazi du. Hala ere, “lehentasuna emango zaie berangoztarrei”.

PORT AVENTURARAKO
BIDAIA AZAROKO ZUBIAN

Berangoetako Kultur Etxeko langileek Port Aventuraarako bidaia antolatuta dute urriaren 31tik azaroaren 4a arte. Bidaia autobusez egingo dute eta Costa Caribe Hotelean hartuko dute ostatu. Ondo pasa lagunak!

Lonjak etxe

Lokal komertzialak **etxebizitza** bezala erabiltzeko araua onartu dute



Hutsik dagoen lonja Berangoko kale nagusian

Uribe Kostako beste herri batzuetan gertatzen den bezala, lokal komertzialetan etxebizitzak eraiki ahal izango dira hemendik aurrera Berangon. Azken urteotan etxebizitzaren prezioaren igoerak gazteei, eta hain gazte ez direnei, ekarri dizkien buruhausteak direla eta, berangoztar askok poztasunez hartuko dute albiste hau. Getxon, adibidez, mota honetako etxebizitzaren kopurua biderkatu egin da eta gurasoen etxea utzi nahi duten gazte askoren aukera bihurtu da.

Bizkaiko Foru Aldundiko Hirigintza eta Udal Harremanen Sailak eman du Berangoko Arau Subsidiarioak aldatzeko onar-

pena, ekainaren 28ko 880/2007 Foru Aginduaren bitartez. Hau, hiri-lurzoruan beheko solairuetako lokal komertzialen erabilera aldatzeko jarduerari egiten die erreferentzia. Interesa izanez gero, lokal komertzialen erabilera aldatzeko eta etxebizitza bezala erabiltzeko proiektuak udal bulegoetan aurkez daitezke, beharrezkoa izango den obra lizentzia jaso ahal izateko. Honen inguruko informazio gehiago eta testu arau-emailea Udal Bulegoetan, udalaren www.berango.net web orriko “Berriak” atalean eta 2007ko abuztuaren 14ko 159zk.ko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean aurki daitezke. o

INOLA > Urdulizko Emakumeen Elkarte Kulturala

“Herriko emakumeok **asko daukagu esateko** eta berba egin gura dugu”



18 eta 70 urte bitarteko 200 emakume inguruk osatzen dute elkarte

Hamahiru urtez hemendik hara ibili ostean, lokal berria lortu dute Inola emakume elkarteko lagunek. Oztopoz betetako bidea gainditu behar izan dute gaur egun dauden tokira heltzeko: “Alkateari eskerrak eman behar dizkiogu emandako laguntzagatik; baina lokal berria merezi genuela ere egia da”. Malenkoniaz gogoratzten dute 1994ko maiatzean burututako lehenengo bilera: “Asko borrokatu dugu ordudanik”. Gaur egun, 18 eta 70 urte bitarteko 200 emakume inguruk osatzen dute bazkideen zerrenda eta horrek aurrera jarraitzeko indarra ematen die.

Herriko emakumeen ikuspegia eta zerEGINA lantzea eta zabaltzea da euren helburu nagusia: “Asko daukagu esateko eta berba egin gura dugu”. Honez gain, Agenda 21 proiektuan parte hartzen dute. Herri bizia nahi dute eta horren alde lan egiteko prest daude: “Herriararren borrokan eta parte hartzean sinesten dugu”.

Umeak, ogibidea, etxeko lanak, elkar-egintza... dena uztartzea zaila dela aitortu digute. Hala ere, 2007-2008 ikasturtea indarrez hasteko asmoa daukate: “Lokal berriak asko erraztuko dizkigu gauzak. Guk geure bigarren etxea dela esaten dugu. Orain, ikastaroak edo ekitaldiak antolatzen ditugunean, ez dugu hauek aurrera eraman ahal izateko leku baten bila ibili behar izan-

«**Lokal berria gure bigarren etxea da guretzat; aukera berriak zabaldu dizkigu**»

go”. Grafologia, pilates, zine tailerra eta beste hainbat ikastaro eskainiko dituzte. Ateak zabalik daude hauetan zein urtean zehar antolatuko dituzten ekimenetan parte hartu nahi duen edonorentzat. Beraiekin kontaktuan jartzeko, Urdulizko eliza ondoko lokalera hurbildu, inola@inola.es helbidera idatzi edo 94 676 34 96 telefonora dei dezakezue. o



TXIBERRI
e d a n t o k i a
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15

BASTARTENA



URDULIZ

Telefono: 946 761 128

AJURIA
TABERNA

Andrés Cortina 2

ALGORTA



Taberna Berri

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493



VIEJO CAFE

kopak eta
giro jatorra

Alangobarri, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37



Arasa

Sukalde eta Komunetarako
Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen
zaharberritzeak eta
dekorazioa

Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

SAN INAZIO
AUTOESKOLA

195IN SORTUA

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

KRISI AHAZTUAK: BIZITZA EZ IKUSIAK ERAKUSKETA

Mugarik Gabeko Medikuak GKEak, *Krisi ahaztuak*: Bizitza ez ikusiak argazki erakusketa ikusgai jarriko du urriaren 30a arte Plentziako Goñi Portal Kultur Etxean. Erakusketak kontuan hartzen ez diren munduko hainbat gatazka islatzen ditu, Somalia, Chechenia, Kongo eta Kolonbiakoa, besteak beste. Goizetan 11:00etatik 13:00era eta arratsaldetan 16:30etik 20:00etara egongo da zabalik.

IRATIRA MATRAKO MENDI TALDEAREKIN

Matrako Mendi Taldeak asteburuko irteera antolat du Iratira urriaren 27 eta 28rako. Ibilbidea zailtasun ertainekoa izango da eta nahi duenak har dezake parte. Bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte eta 120 bazkide ez direnak. Autobusa, sagardotegiko afaria, ostatu hartzea eta gosaria sartuko dira prezioaren barnean. Urriaren 19a izango da izena emateko azken eguna.

Informazio gehiago: matrakomenditaldea@hotmail.com

ITSASKI-BILKETA BAIMENDUA PLENTZIAN

Eusko Jaurlaritzak itsaski-bilketa baimendu du Plentzian, harrapaketak zentru ofizialetan araztuak izaten badira. Gebenaldia urriaren 1etik abenduaren 31a arte egongo da zabalik eta salbuespen batzuk izango ditu. Izan ere, ezin izango da itsaskia bildu Arrainola gaineko uretan, ezta muskuilua bildu ere.

GORLIZ

IX-XVIII. mende arteko aztarnak eliza inguruan



Indusketa lanak Gorlizen

Arkeologia-indusketa bati esker, IX eta XVIII. mendeen arteko nekropoli baten aztarnak aurkitu dituzte udaletxe ondoko elizako ingurumarietan. Zazpi arkeologok osatutako lantaldeak, *“oso garrantzitsutzat”* jo du aurkikuntza; izan ere, *“Bizkaian aztarnategi gutxi aurkitu dira herriguneetan”*. Indusketak 2006an hasi ziren eta, orain arte, 70 giza hondar aurkitu dira, hiru garai ezberdinei dagozkienak.

Lehenengoak, XVII. eta XVIII. mendeetako eliza baten egiturari dagozkio. Gai-

nontzekoak, XV-XVI. mendeetan erabilitako hilerri baten hondarrak dira. Honez gain, IX-X. mendeetakoa izan zitekeen Erdi Aroko herrixka baten hondarrak eta XVI. mendeko labe baten egitura izan zitekeena aurkitu dute.

Azkeneko emaitzak datozen hilabeteetan kaleratuko dira, prozesu guztia amaitzen dutenean. Emma Calzada alkatearen esanetan, txostena Bizkaiko Foru Aldundiari eta Gorlizko Udalarai helaraziko zaio, zonaldearen etorkizuna erabakitzeko. ○

Urriak 15-31

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: agendauk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

LEMOIZ

► Txelu Angoitiaren argazkiak. Kultur Etxea. Urriaren 13tik 23ra.
► Felix Maria Samaniegoren argazkiak. Urriaren 25etik azaroaren 9ra.

GETXO

► Bonifacio Alfonso, Juan Luis Goenaga eta Fernando Biderbosten pinturak. Erromoko erakusketa aretoa. Urriaren 16tik azaroaren 3ra arte.

PLENTZIA

► Médicos sin Fronteras. “Crisis Olvidadas: Vidas ignoradas”. Urriaren 3tik 30era arte.

MUSIKA

GETXO

► Autogestio jaia. Leihotikan. Txorimalo gaztetxea. Urriak 31, eguaztena. 20:00. Sarrera: 3 euro.
► Musikene flauta taldea. Getxo antzokia. Urriak 25, eguna. 20:00. Sarrera dohainik.

ERANDIO

► La Gripe. Altzagako azoka zaharra. Urriak 19, barikua. Sarrera gonbidapenarekin.

LEIOA

► 4 brothers and a ghost. Café Ambigú. Urriak 19, barikua. 22:00. Sarrera: 6 euro.
► Fam de Funk. Auditorium. Urriak 26, barikua. 20:30. Sarrera: 10 euro.

ANTZERKIA

ERANDIO

► Jokaut. Pikor Teatro. Altzagako azoka

► Herri bazkaria

Badator Indabada

Urriaren 27an Indabada berria datorkigu. Jadanik zortzi urte igaro dira Algortako Gazte Asanbladak aipatutako herri bazkaria antolatzen hasi zenetik. Festa 13:00ean hasiko da: sagardoa dastatzeko aukera edukiko dugu trikitixaren doinuek giroa alaitzen duten bitartean. 14:30ak aldera bazkaltzeko hitzordua dago jarrita. Horren ostean joku dibertigarrietan parte hartuko dute plazara hurbildutakoek. Jolasak bukatu ondoren, poteo erraldoia abiatuko da herriko tabernetatik zehar txaranga baten laguntzagaz. Aipatutako poteoa Txorimalo gaztetxean bukatuko da. Animatu eta parte hartu!

• Non: San Nikolas plaza • Noiz: urriak 27 • Ordua: 13:00

zaharrean. Urriak 18, eguna. 20:00.

► Una hora de radio. Pakidermo. Altzagako azoka zaharrean. Urriak 27, zapatua. 19:30. Sarrera gonbidapenarekin.

GETXO

► Bota patsa! Txalo. Getxo Antzokia. Urriak 19, barikua. 20:00.
► Kanpanolue Eidabe. Algortako Geltokia. Urriak 20, zapatua. 13:00.
► Rosi Erosi Dehibi's. Andres Isasi Musika Eskola.

Urriak 20. 18:00.

ZINEMA

LEMOIZ

► Ikusi-makusi. Armintza. Urriak 26, barikua. 18:00.

PLENTZIA

► Movida en el polo. Ludoteka. Urriak 19, barikua. Doan.
► Colegas en el bosque. Ludoteka. Urriak 26, barikua. Doan.

GETXO

► Doraemon eta dinosaurio txikia. Getxo antzokia. Urriak 28, domeka. 12:00, 17:00, 19:00. Sarrera: 2,10 euro.

BESTEAK

GETXO

► VIII. Indabada. Txiki Otaegi enparantza. Urriak 27, zapatua. 13:00.

ERANDIO

► Irteera perretxikoak eta onddoak batzera. Josu Murueta. Urriak 20, zapatua. 8:00.
► Perretxikoen dastaketa. Josu Murueta Kultur Etxea. Urriak 21, domeka. 12:00.
► Liburutegiaren eguna. Irailaren 23a plaza. Urriak 24, eguaztena.

LEIOA

► Nafarroa oinez. Biana. Urriak 21, domeka. Sakoneta kiroldegia. 8:30. Sarrera: 3,50 euro.

GORLIZ

► Joseba Ríos Garaizar: "Historiaurrea Uribe Kostan". Erakusgelan. Urriak 19, barikua. 19:30.
► Ipuin kontalaria. Ikastetxea. Urriak 20, zapatua. 18:30.
► Euskaraz olgetan. Iberrebarri. Urriak 21 eta 28. 12:00.

PLENTZIA

► Arrisku Handiko Janari-Erabilitzaile karneta. Azaroak 5 eta 6. Izen ematea urriaren 17ra arte. Goñi portal.
► Nafarroa Oinez. Biana. Urriak 21, domeka. Goñi portal. 8:30. Sarrera: 9 euro.

BERANGO

► Port Aventura bidaia. Berangoeta. Urriak 31, eguaztena. 315 / 195 euro.

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51

ALGORTA



[albuma]

Eloisa Artaza familia, 1907



Anton Saratxo, 1912



Gorlizko memoria

Gehienok badaukagu etxean familiaren argazki-albuma, orrialde horietan gure memoria gordetzen ahalegintzen gara. Bada, Gorlizen album horien antzeko bat osatu dute XIX. mendearen bukaeratik XX.aren bukaera arteko gorliztarren erretratuekin. *Gorliz, herri baten aldiuneak* deitzen da liburua eta bertan ehunka argazki hunkigarri aurki daitezke. Hementxe adibide batzuk dituzue. Ekimen polita.



Begoña Ruiz eta Nieves Montes, 1951



Portalena taldekoak tortila erraldoia prestatzen, 1973



Julian Jauregi eta Enrique García, 1971



Txistulariak, 1965



Lagun taldea hondartzan, 1973



Urris taldekoak, 1970



Igerilariak

Javier Pedro Fernandez

Gorlizen orain dela hamabost urte argazki lehiaketa antolatzen dute urtero. Gaia beti Gorliz herria izaten da. Aurtan 27 lagunek hartu dute parte eta guk orrialdeotara bigarren saria eskuratu duen Javier Pedro Fernandez berangoztarraren lana ekarri nahi izan dugu. Argazkia Gorlizen egiten den triatloian atera zuen Fernandezek.

GORLIZ, 2007

[berbetan]

Algortako Portu Zaharrean daukan lantegi txikian elkartu ginen Inazio Gutierrez Osteikoetxearekin, 85 urte. Gerra bi ezagutu ditu. Igeltseroa eta arrantzalea. Bizitzan lan eta lan besterik egin ez duela aitortu digu. Akaso horixe izango da bere osasun eta memoria itzelaren sekretua. Gizon apala, zintzoa, eskuzabala... inbidia sana sentitzen du batek horrelako pertsona baten aurrean. Portu Zaharrean eman du bizitza osoa; hura maite du gehien eta bera ere ikaragarri maite dute han. Ardo gorri botila ireki zigun eta berbetan hasi ginen udagoien honetako egun euritsu baten iluntzean...

Inazio Gutierrez

Portu Zaharreko memoria bizia

Testua: **Jokin Aspuru** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

—Kontaidazu Inazio....

—Aita nuen Rufino Gutierrez Larrazabal, denek *Pazientzia* deitzen zuten. Areatzakoa zen bera, Upo mendikoa, Gorbeian. Gero Bermeoa aldera joan zen eta han *baporzito* patroi egin zen. Nire amak Lauriana Osteikoetxea zeukan izena. Talaietakoa zen, hemengoa, Algortakoa. Saregilea zen bera. Bada sareak Bermeotik hona ekartzen zituzten, Portu Zaharrean sikatzera eta hementxe eza-gutu zuten elkar aita eta amak, Portu Zaharrean. Gero ezkonduko ziren. Hementxe nik hamaika urte bete arte bizi izan ginen eta gero Gariñera, Usategi alboko etxe batera joan ginen.

—Aita beti arrantzalea, ezta?

—Bai eta oso ona, eta itsasoan oso ausarta ere bai. Pentsa ezazu, garai hartan belaontziak ziren denak. Motordunak hemen hiruzpaulak baino ez zeuzkaten. Nire aita Abrara ate-

ratzen zen eta haizerik ez bazegoen, han itsaso erdian zazpi orduz itxaroteko gauza zen. Izan ere, berak ez zituen arraunak sekulan hartzen, haizeak eroaten zuen hara eta hona. Eta esan dizudan moduan, haizea berriro ater arte itxaroten zuen; *Pazientzia* ipini zioten.

—Ezizenak erabiltzeko ohitura handia dago Portu Zaharrean...

“Oinutsik ibiltzen ginen guk txikitan Portu Zaharrean”

—Bai, bai, gainera oso normala izaten da hori arrantzaleen artean. Gogoratzen dut esaterako *Paten*. Enrique Francori *Paten* esaten zioten, izan ere, oso kurioa eta txukuna zen bera. Edota *Txaketon*, Fernando Arenaza, beti itsasora txaketo berarekin ateratzen zen eta. Beste asko egon dira: *Faneka*, *Otxoaldau*, *el Castres*... Guztien belaontzien izenak ere

gogoratzen ditut: *San Jose*, nire aitarena; *Aurrena*, Juan Ardanzarena; *Dos hermanos*, Patenena; *El joven Maria*, el Castresena; *Irene*, Antonio Basantarena; *El joven Lucia*, Santiago Deustorena... Arrantza asko zegoen orduan.

—Gaur egun berriz ezer gutxi dago, noiz etorri zen arrantzaren gainbera?

—Orain dela 40 bat urte gertatuko zen hori. Gaur egun Faneka eta Karin gazteak lekukolari heldu dioten bakarrak dira. Karin oso arrantzale ona da, eta pertsona hobea. Behargina, isila, ez gu bezala, beti berriketan eta guzurak kontatzen. Beti gogoratuko dut hau, orain dela 35 bat urte izango zen. Arriluzen hiru lagun artean ia 90 kilo angu-



Eskuineko orrialdean, Inazio Gutierrez bere Portu Zaharreko lantegitxoan; goian, bera aita Rufino *Pazientzia*-ren erretratua

la harrapatu genituen. Han gu laguntzen zebilen Karin, artean ume koxkor bat besterik ez zen. Gurekin sarritan egoten zen, ikasten, enredatzen.

—**Gaur egun berriz, zelakoa izaten da zure ohizko egun bat?**

—Goizeko 8.30ean esnatzen naiz, zarama jaitsi eta ogia erosten dut. Segituan Portu Zaharrea nator. Orain nire semearekin bizi naiz Bidezabal metro geltokiaren alboan baina hemen, Portu Zaharrean, egiten dut bizitza. Beti daukat zer edo zer egiteko, txapusaren bat lagunene txean. Nire txokoan harea, zementoa eta behar dena daukat beti. Eguerdian, hama-bitan edo, Morroko puntara joaten naiz oinez paseoan, tipi-tipa. Bueltan lagunekaz txikito pare bat hartu eta banoa etxera bazkaltzera. Ondoren, lo kuluxka egin eta 4.30ean honuntza nator atzera. Eguraldi ona egiten badu txipiroietara joaten naiz, edo mojojoiak hartzera. Gero jeneroa oparitzen dut, familian. Baina beti baten bat enteratzen da eta gehiago eskatzen didate. Hauek bezeroak! Tira, iluntzean beste txikito pare bat eta etxera biltzen naiz.

—**Algortako Portu Zaharrean eman duzu bizitza. Zelan gogoratzen duzu zure haurtzaroko portu hura?**

—Beste gauza bat zen. Orduan goseak hiltzen geunden hemen. Ezer gutxi zegoen. Pentsa ezazu, oinutsik ibiltzen ginen txikitan. Familia guztiak oso handiak ziren, gu bederatz bi nebarreba ginen eta danok jan behar.

—**Oso gazte zinela harrapatu zintuen gerrak...**

—Gerra hasi zenean nik hamabost bat urte edukiko nituen. Boluntario moduan Urdulizko Santa Mariñen eta Bilanoko lurmuturrean lubakiak eta metrailadoreentzako zuloak egiten egoten nintzen, beste haur asko bezala. Handik itsasontzien arteko borrokoak ikusi nituen, ikaragarriak. Nazionalak gero eta hurbilago zeuden. Eta gurasoek alde egitea erabaki zuten. Santoña aldera ontziz joan ginen Arriluzetik aterata, gu eta beste jende asko. 1937ko uztaila zen.

—**Zergatik alde egin zenuten, arrazoi politikoengatik edo...**

—Ez, beldurrak eraginda. Aita arrantzalea zen, horixe baino ez. Baina beldur handia zegoen. Esan dizudan moduan Santoñara joan ginen,

gero Riaño herrixkara, handik Santanderrera eta gero itsasontzi ingeles batean Frantzia aldeira ihes egin genuen. Herbestean hiru urte eman nituen nik. Frantziatik, gerra artean jarraitzen zuen hemen, Pirinioak zeharkatuz Katalunian sartu ginen. Eboko borrokan ibilitako nire anaiarekin elkartu nintzen han. Gero Frantziara joan nintzen San Quintin ingurura, Estrasburgotik hurbil. Erremolatxa jasotzen genuen barrakoietan bizi ginen 600 bat errefuxituok. Leku guztitakoak ginen: Almeria, Kordoba, Kataluniakoak.... 1940. urtea zen eta naziak Polonia hartu zuten eta gero Holanda, Dinamarka eta abar. Teniente

“Santa Mariñen eta Bilanon lubakiak egiten egon nintzen boluntario”

frantziar batekin harreman estua neukan eta hark, Frantzia galduta zegoela esan zidan, zer eginik ez zegoela, hobe genuela alde egitea. Oso armanentu zahartua zeukaten frantsesek, alemanek berriz ikaragarria, punta-puntakoa, beldurgarria. Eta orduan etxera itzultzea erabaki nuen.

—**Arazorik izan zenuen atzera hona sartzeko?**
—Nik ez, artean oraindik gaztetxo bat besterik ez nintzen. Zeozer txarra egin izan nuen galdetu zidaten behin eta berriz militar espainiarrek Hendaian. Nik ezetz eta ezetz esaten nien. Izan ere, ni ez nintzen politikan sartuta egon. Niri buruzko txostenak ere eskatu zituzten Getxon bertan. Han itxaron behar izan nuen baina arazo barik itzuli nintzen herrira. Baina beste batzuk gorriak ikusi zituzten.

“Politikarekin gerran desengainatu nintzen ni”

Mugan bazeuden baserritar euskaldun asko. Horiek erdararik ez zekiten eta horiei bai, jipoi itzelak ematen zizkieten. Haiek kolpeak, hura bidegabekeria!

Ez ditut sekula ahaztuko amaren muxuak etxera itzuli nintzenean. Orduan nire anaia nagusiak igeltsero lanak irakatsi zizkidan. Eta horretan ibili nintzen jubilatu arte.

—**Politika, eliza, gaur egun....**

—Ez naiz sekulan horretan ibili. Gerran hartu nuen nik desengainua. Bonbardekaetak hasi eta mando guztiek ospa egiten ikusten nituen nik. Lau katu baino ez ziren han geratzen borrokan, gerra guztietan bezala. Gaur egungo gazte hauek erratuta dabilta. Ez al gara ondo bizi? Gizona ona bada errespetatu behar da, komunista, sozialista edota abertzalea izanik ere. Ezin zaio inori bizitza kendu. Lasai bizi behar dugu, beti hurkoa errespetatuz. Baina gazte hauek ez dira gelditzen...
—**Esaten genuen moduan, herbestetik itzuli eta igeltsero lanetan hasi zinen. Zergatik ez itsasgizon?**

—Nire amamaren berbak ez ditut sekula ahaztuko, berak esaten zidan: *“Inazio ofizio, Inazio ofizio”*. Lan segurua nahi zuen niretzat. Gainera itsasgizonak ez zuten ospe onik, alperak eta bizimodu txarrekoak zirela esaten zuen berak beti. Hala ere, ni igeltsero lana egin eta gero itsasora ateratzen nintzen arrantzan ahal nuen guztietan. Bai etxera jeneroa ekartzeko eta bai saltzeko ere. Amarekin hartzen nuen tren Negurin, saski handi berdelez bete birekin joaten ginen Bilbora, han jeneroa saltzeko. Txipiroiak, lupinak, kabratxoak, angulak, kiskilloia, ezkarak, mojojoiak... Zer ez dut nik ba arrantzatu?

—**Zelan gogoratzen duzu gerraosteko urteak?**

—Hemen ez zegoen ezer; ez dirurik, ez jate-

Gero atzera itzuli nintzen hona eta lanean, ez dut besterik egiten jakin bizitzan, jarraitu nuen. Beti igeltsero.

—**Horrenbeste urtez igeltsero, egin dituzun lanen artean zein obra gogoratzen duzu?**

—Buufff... asko eta asko egin ditut. Denetarik egin dut: komunak, etxaurreak, teilatu mordoa.. 1943an Ayala teatroa egin genuen, Deustuko eliza ere bai. Hemen Algortan txalet eta etxe mordoa altxatu genituen: Smithena, Txabarri markesarena, Zubiria kontearena, Basterratarrenak... Baina kariño handiz gogoratzen dut 50. hamarkadan anaiarekin batera Benturillenan egin genuen gure etxetxoa. Bost urte eman genituen eta pentsa ezazu, idiekin mugitzen genituen lurrak.

—**Zu ez duzu euskaraz berba egiten. Zergatik?**

—Nire gurasoek euskaraz egiten zuten berba, guztia. Nik ez dakit zergatik baina ez ziguten guri irakatsi. Sarritan, gu edo kanpotarrek ez ulertzeko erabiltzen zen euskara. Portu Zaharrean nire gurasoen belaunaldi horrekin amaitu zen euskara. Getxoko Andra Marin berriz, eta handik ekialdera, Berangon eta

Sopelan, han bai, han gorde zuten. Pasadizo bat kontatuko dizut. Lleidan, gerra garaian Agirre Lehendakariekin topo egin zuten gurasoak eta beragaz euskaraz berbetan zeuden. Gero anaia eta biok heldu eta euskaraz gurekin berbetan hasi zen Agirre, eta guk jakin ez. *Ay pardillos maketos! Zuen bizkuntza jakin ez!* esan zigun. Ez dut hori sekula ahaztuko. Hura gizon ona!

—**Emazteari oso lotuta bizi izan zara Inazio...**

—Eugenio del Carro zeukan izena. Beti oso loturik egon ginen orain dela bospasei urte alzeimerrak eroan zuen arte. Beti elkarrekin egon gara. Oso behargina zen bera. 40 urtez

“Nire gurasoen belaunaldiarekin galdu zen euskara Portu Zaharrean”

Libano medikuarenean interina ibili zen eta beste 30 urtez Pakiko Urretxuarenean. Leku batean goizez eta bestean arratsalde. Eguerdi guztietan elkarrekin bazkaltzen genuen. Sarritan domeketan ez zidan arrantzara joaten uzten eta etxea garbitzen genuen elkarrekin.

Egizu hau Inazio eta gero bestea... A ze emakume! Beste domeka batzuetan berriz neuk arrantzatutako txipiroekin kazola prestatu eta Galea aldera joaten ginen arratsalde pasa egitera lagunekin.

—**Zer eskatzen dio bizitzari gaur egun Inaziok...**

—Bakea, lasaitasuna, lagunekin egon ahal izatea... hemen gure meriendak egin ahal izatea, gure guzuurrak bata besteari kontatzea... Osasuntsu bizi maite dugun jendearekin batera. Horixe.

—**Betidanik jantzi izan duzu daukazun txapel hori?**

—Txiki-txikitatik, beti eroan izan dut nik txapela. Eguzkiak min egin eta ideiak nahasten dizkit. Euritarako ere primerakoa da. Lehen txarragoak ziren txapelak eta euriarekin tintreak aurpegia zikintzen zuen baina... ○

aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

HARPIDETZA > bete azpiko fitxa eta guri bidali

Izena.....Deiturak.....
Kalea & zenb.....Herria.....
e-mail.....Telefonoa.....

Urtero ☐ 20 euro ☐ 30 euro ☐ 50 euro ☐ beste kopuru bat euro
Kontu zenbakia (20 digito).

□□□□ □□□□ □□ □□□□□□□□□□

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa / 48991 Getxo / uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37



OSKAR MARTINEZ, PUNTA GALEA 2007

Bestelako postalak

Helburua nolabait “Getxo” topikoa zalantzan ipintzea zen eta aldi berean irudi sorta honen bidez geure herriaren errealitateari lotuago egon daitekeen nortasuna sortzea. Jomuga honekin herriko hamar bat argazkilari ospetsuri argazki bina eskatu genizkien; gaia jakina, Getxo baino ez zen. Eraitza GETXOPHOTO aurkeztu genuen argazki multzo hau duzue. Irudi hauetako batzuekin ere postal bilduma bat argitaratu da.



CARLOS TERREROS, GETXOKO KIROL PORTUA 2007



CARLOS TERREROS, GETXO 2007



ALFREDO ALDAI, ALGORTA 2007



JUAN LUIS MARKAIDA, GETXO 2007



ASIER MENTXAKA, ALGORTA 2007



ELENA BARRUETA, AZKORRI 2007



GONZALO M. AZUMENDI, ARRIGUNAGA 2007



ELENA BARRUETA, GETXO 2007



FATIMA DIEZ GARAIGORTA, AREETA 2003



TXETXU BERRUEZO, AZKORRI 2007



FATIMA DIEZ GARAIGORTA, SAN JUAN SUA, ALGORTA 2007



TXETXU BERRUEZO, EREAGA 2007



Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioa

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00



etorri
eta
ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta



BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

[liburuak]

Alberdania orriz orri

Bere txikitasunean handi den argitaletxeak udagoien honetan ere emango ditu fruituak

Aurtengo honetan ospatuko ditu Alberdania argitaletxe txiki baina garrantzi handikoak 15. urteurrena. Literaturaren plazatik egin duten ibilbidea zelanbait labur dezaketen datu gutxi batzuk ematearren, horra hor: *“300 izenburu baino gehiagoko katalogoa, 200 idazle baino gehiago, genero nagusiak jorratzen dituzte (fikzioa, poesia, haur eta gazte literatura, saiakera, memoria, lekukotza liburuak...), euskarazko merkaturuan erreferentziatzeko eta kalitate handiko lekua, Euskadi Literaturako 5 saridunek berretsia (Felipe Juaristi, Anjel Lertxundi, Jokin Muñoz, Harkaitz Cano, Iban Zaldua) eta Espainiako Haur eta Gazte Literaturako saridun bat (Mariasun Lan-*

«Lydia Flem, Abdela Taia, M. Yourcenar, Luis Sepulveda, Patrick Süskind... itzulita»

da) ditugu gure artean...”. 2000n *Alga* saila sortu zuten gaztelaniazko liburuak merkaturatuz; bestalde, arreta berezia merezi du saiakera laburrari eskaintzen dioten *Zer-berri* sailak.

Aurten ere, ohi duten legez, zarata asko egin barik, lana patxadaz, mimoz eta nekatu barik eginda, hainbat lan interesgarri kaleratu dituzte, batzuk merkaturatu daude daborduko, beste batzuk laster



Patrick Süskind

egongo dira; ondorengoak dira: *Amodio Gutunak oinordetzan* (Lydia Flem, Joxan Elosegik itzulita, gaztelaniaz ere argitaratu dute); *Erremateko tiroa* (Marguerite Yourcenar, Josu Zabalek itzulita); *Salbazioko armada* (Abdela Taia, Patxi Zubizarretak euskaratua); *Pijama marradunaz jantzizako mutikoa* (John Boyne, Mirentxu Larrañagak euskaratua); *Kaio baten historia eta hegan egiten inakatsi zion katua* (Luis Sepulveda, J.M. Mendizabalek euskaratua); *Dakiguna ikasten* (Patziku Perurena); *Txantxetan ari zara, Tanner jauna* (Jean-Paul Dubois, Mikel Garmendiak itzulita euskarara, gaztelaniaz ere plazaratuko dute), *Perfumea* (Patrick Süskind, Miren Arratibelek euskaratua)... ○

liburuak



De Ernesto al Che
Carlos “Calica” Ferrer
Txalaparta

Lau urtegez Ernesto Guevara ezagutu zuen Carlosek eta ume aroan eta gaztaroan zehar oso lagun onak izan ziren biak. 1953an abentura-bidaia bati ekin zioten Latinoamerikan zehar. Bertan Guevara Che Guevara komandantea bilakatu zen. Liburu komandanteagaz bizitakoa kontatzen du.



Zu bezain ahul
Karmele Jaio
Elkar

Giza-harremanen mapa zabal eta konplexua saiatzen da deskribatzen Karmele Jaio idazlea: Guraso zaharrekiko erlazio mingotsak, seme-alaba txikienganako maitasun-loturak, senar-emazteen ohikotasunetik asperdurara bitarteko muga lausoa...

[kirola]

Erraldoiak taulapera berriro

Punta Galea Big Challenge txapelketa hasteko olatu handien zain dabilta dagoeneko



lazko lehiaketan hartutako irudia

Hil honen lehenengo egunetik daude zain olatu handietako zaldunak. Noiz arte egon beharko duten 4 metro baino gehiagoko altuera duten olatutzarrak itxaroten? Hori itsasoak erabakiko du. Baliteke lerrook irakurtzen dituzunerako txapelketa amaituta egotea, edo gerta liteke hilabete pare batez haiek noiz helduko zain begira egotea, edota azken egunera arte (hurrengo urteko apirilaren 1ean amaitzen da epea) olatu erraldoiek jai hartzea... Itsasoak oraindik orain badaukalako bere nahiak betetzeko askatasun osoa. Dena dela, Punta Galea Big Challenge (edo erronka handia) txapelketa egiteko bitartea zabalik dago eta olatu erraldoietako surfari oldakorrak itsasoari begira daude, *“laumetrokoak badatoz!”* deiadarra entzun bezain laster ohola hartzeko prest!

Punta Galeako itsaslabarren oinetan harrotzen diren olatu bereziak menderatzen ahaleginduko diren *bigrider*-ak 18 bat izango dira, eta horien artean hurrengoei luzatu diete gonbidapena antolatzaileek: Jaime Fernan-

dez, Aritz Aranburu, Manu Portet, Aritz Saratxaga, David Bustamante, Eneko Acero, Iker Acero, Julen Larrañaga, Asier Munain, Iker Amati...

Punta Galeako Erronka Handiaren antolatzaile Euskal Herriko Surf Federazioak (EHSF) eta 3Sesentak jakinarazi dutenez txapelketak 4 orduko iraupena bakarrik edukiko du eta “surfariak beraiek epaituko dituzte

«Txapelketan parte hartzera gonbidatuko dituzten surfariak 18 bat izango dira»

parte hartzaileak”. Horrez gainera, guztira 8.000 euro banatuko dituzte hurrengo sarien artean: olaturik handiena hartzen duenarentzako saria, surfari osoenari saria, jaitsierarik bortitzena egiten duenari saria eta *wipe out* bikainena lortzen duenari saria. Horrenbestez, itsasoak gura duenera arte! Bitartean, olatu onak izan ditzazuela! ○

Informazio gehiago: www.euskalsurf.com

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXeko ELEKTROTRESNEN KONPONKETA

Lacofris, s.l. SERVICIO

- MARKA GUZTIAK
- 24 ORDUTAN ERANTZUNA
- 3 HILABETKO GARANTIA
- 25 URTEZ ZURE ZERBITZUAN
- IRTEERA DOAN

☎ 94 430 52 00 Kasune, 18 - ALGORTA

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Txarli Llorente > zinema zuzendaria

“Asko hunkitu gaitu bidaia luze hori egiten zegoen jendea grabaketan topatzeak”



Argazkian, Txarli Llorente

Getxoztarra, 1957. urtean jaio zen. Askoren zuzendaritza-laguntzailea izan da Txarli Llorente, besteak beste, Imanol Uribe, Juanma Bajo Ulloa, Julio Medem, Jose Luis Garcia Berlanga eta Fernando Fernan-Gomez. Honez gain, publizitatean ibilia ere bada. Bere azken lana Afrikatik datozen etorkinen ibilbide latza jorratzen duen *Querida Bamako* filmean Omer Okerekin batera zuzendari gisa jardutea izan da.

—Zergatik erabaki duzue *Querida Bamako* bezalako gaia jorratzea?
—Pil-pilean dagoen gaia delako, egunero albiste delako eta batez ere, elkarrekin bizi garelako. Herriko plazan aurki dezakezun errealitatea da eta horregatik uste izan dugu inmigrazioaren fenomenoa jendeari azaltzea ideia ona dela.
—Pelikulak istorio eta testigantza ugari ditu: nondik atera dituzue horiek?
—Testigantzak lehen eskutik atera ditugu, bidaia hori egin duten pertsonengandik. Lehenengo urratsa jendeari elkarrizketa egitea izan da. Bertan zergatik datozen, haien kez-

kak zeintzuk diren, bidaia nola egin zuten etab. galdetu genien, eta bertatik abiatuta, gidoia idatzi genuen. Dokumental formatua eman beharrean, uste izan dugu lortutako istorio guztiak bi pertsonaia fiktizioetan gorpuztu zitezkeela. Beti ere, ikuspegi emozionalena adierazten ahalegindu gara.
—Grabazio egunak zelakoak izan dira?
—Pelikula bost herrialdetan grabatu dugu: Burkina Fason hasi genuen, Nijar, Bali, Aljeria, Maroko eta Espainian bukatu genuen. Asko hunkitu gaitu bidaia luze hori egiten zegoen jendea topatzeak eta haiekin batera joateak. Hauek askotan filmean parte

hartu dute estra moduan. Oso lagungarriak izan dira, euren errealitatea are gehiago eza-gutu baitugu.
—Afrikaz hitz egizu: zer inpresio eman dizu?
—Afrika oso azpigaratua dago inbertsioei dagokienez. Denetarik dago: badaude herri batzuk demokratikoagoak direnak eta beste batzuk berriz, diktatorialagoak... baina oro har, jendea oso txarto bizi da. Heltzen diren laguntzak gobernuetako agintarien artean banatzen dituzte eta horrenbestez herria gose da. Bestetik, duintasun handia dute herritar horiek, baina era berean, herri pobre guztietan bezala, inuzentzia da nagusi. Baina tx-

«Gobernu afrikarrek ez dute herria garatzeko inolako interesik»

rrena da gobernuak ez dutela herria garatzeko inolako interesik: ez dago garapen programarik eta ez daukate iniziatibarik; eurentzat erosoagoa da atzerititik datozen dirulaguntzak hartzea, noski. Hala ere, Europara etorritako afrikarrak etxera bueltatzean hau guztia aldatuko delako ustea dut, oso argi baitute afrikarrak direla eta inoiz bueltatuko direla.
—Donostiako Zinemaldian aurkeztu duzue pelikula. Zer harrera eduki du?
—Filmeak harrera ona eduki du. Estreinaldi eguna oso hunkigarria izan zen: testigantza eman zizkiguten zenbait etorkin joan ziren Zinemaldira, eta oso arraroa izan zen eurentzat Donostiako alfonbra gorrian autografoak sinatzen egotea, ez dakitenean bihar bertan hemendik botako dituzten. Baina bada-kigu pelikula hau saltzea zaila dela, jendeak nahiago baitu entretenimendu huteszko pelikulengatik ordaintzea horrelako gaiak jorratzen dutenengatik baino. ○



MAITE DUT **FUTBOLA**

eta **CANAL+**-en
DEN DENA DAUKAT

CANAL+
19,95 € tik hilabetean

Orain, bi hilabetez, jardunaldi bakoitzeko partida bat **DOAN**

Abona zaitez
ERDIAN
BILKETA

DIGITAL+

Golenkale, 5. Plentzia.
TLF.: 94 677 03 36

URIBE KOSTAKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO
EUSKARA ZERBITZUA
Barrika - Berango - Gortiz - Lemoiz - Plentzia - Sopelana - Urduliz

URIBE KOSTAN ERE EGIZU EUSKARAZ



Hauexek dituzue urte amaiera arte dauden ekintzak

- **Murgiltze-astea.** Mankomunitateko ikastetxeetan DBHn hasten diren gazteei zuzendutako aste berezia.
- **Irakurzaletasuna bultzatzeko kanpaina.** Institutuko gazteen artean Gaztetxulo aldizkaria ezagutuko dute eguneko gaiak euskaraz ere lantzeko.
- **Zenbait diru-laguntza, herriz herri.** Euskara ikasteagatik eta udako ikastaroetan parte hartzeagatik udalek dirulaguntzak eskaintzen dituzte.
- **Ikastetxeetarako emanaldiak.** Ikasturtean zehar hainbat emanaldi eskaintzen dira ikastetxeetan euskara bultzatzeko.
- **Birziklatzeari buruzko ipuinak.** Birziklatzea zer den umeei azaltzen dien ipuina, ingurumenarekin konpromisoa hartzen hasteko.
- **Euskararen eguna, herriz herri.** Abenduaren 3a ospatzeko, herriz herri ekintzak antolatuko dira azaroaren azken astean.
- **Txoko ibiltaria.** Euskarazko produktuen katalogoan agertzen diren joko eta liburu asko esku artean ikusteko aukera izango duzue azaroaren amaieran.
- **Euskarazko produktuen katalogoa.** Gabonetan euskaraz oparitu ahal izateko oparien bilduma bat sortu da.
- **Ipuin lehiaketa.** Hamargarren urteuren honetan, gure gazteek beraien imajinazioa noraino hel daitekeen erakutsiko dute.
- **Olentzero inguruko ekintzak.** Gutunak, tailerrak, antzerkia, oparia... ondo portatzen diren txikientzat.

**Eta hori guztia euskaraz. Horregatik,
URIBE KOSTAN, KOSTA ALA KOSTA, EUSKARAZ**





Getxoko euskaltegiek eta Bizarra Lepoanek osatzen dute EGIZU, eragileok elkartuta lana hobeto egin dezagun.

egizu!

Berbalagun taldeak biltzen gara euskaraz berba egiteko, adinen eta zaletasunen arabera, kirola, kultura eta parranda euskaraz bizitzeko.

Euskalduna bazara lagundu diezaguzu Getxon euskaldun komunitatea indartzen eta euskaldunon sarea zabaltzen.

Ikasten ari bazara parte hartu zure ikasketa prozesua osatzeko eta mintzapraktika egiteko euskaltegitik kanpo.



izena emateko opea urriaren 31ra arte zabalik!

Karitatea, 1 - sotoa-10
48901 Algorta GETXO
609 935 541 | 94 491 43 57
egizugetxo@yahoo.com

Gure jardueretako argazkiak:
www.flickr.com/photos/egizu
eta kronikak:
www.blogarinet.net/egizu

HAMEKO BERBE IKISI GURE DU

Bizkaiera ikastaro aitzindaria iminiko dogu martxan: teoria eta praktika uztarturik, 100 orduko ikastaroa, Labayruk homologatua. Urrian hasita Aste Santuko oporrak arte, bizkaiera estandarra eta gure eskualdeko eta herrietako bizkaiera landuko dogu. Martitzen eta eguenetan, 20:00etatik 22:00etara, **egun batean teoria eta bestean mintzapraktika.**

Mintzapraktika saio honeetan, nonoz, **eskualdeko gonbidatuak** ekarriko doguz. Garrantzi berezia emon gura deutsagu praktikotasunari eta gure asmoa da behin ikastaroa amaituta eta ikasleek gura badabe bizkaierazko Berbalagun taldea sortzea Getxon. Prezio bi egongo dira: Bizarra Lepoaneko bazkideentzat 150 € eta bazkide ez diranentzat 200 €.

Informazioa eskatzeko eta izena emateko:
94 491 43 57 / bizarralepoan@euskalnet.net



Sutegi taska

Etxeko janaria, etxekoentzat



Eskuinean Iñaki Renteria eta Gorka Lopez, alboan Sutegiko zerbitzariak

Iraila hasieran zabaldu zituen atea Sutegi jate-
txeak Algortako Euskal Herria kalean. Izena
Iñaki Renteria eta Gorka Lopezen lagun batek
aukeratu zuen, baina Iñakik “taska” gehitu zion
atzetik: “*Niri beti gustatu izan zaizkit taskak eta,
zoritasarez, inguru honetan ez dira asko gelditzen*”.

Madrilen Turismo ikasketak egin eta Me-
norkan, Valentzian, Euskal Herrian eta beste
hainbat lekutan lanean ibili da Iñaki, baina etxe-
an gelditzea erabaki zuen: “*Algortan jate-
txe zabaldu nahi nuen aspalditik, etxeko produktue-
kin eta etxekoentzat*”. Lokala erosi, hemendik eta
handik gauza batzuk hartu eta dena txukun utzi
dute: “*Barna, lanparak eta armairu batzuk birzi-
klatuak dira. Jendeari gehien gustatzen zaiona
komunak dira, ez dakit zergatik*”.

Txerripatak, sardina erreak, begihandiak,
txuletoia... herriko dendetan erositako produk-
tuekin egiten dituzte kartako plater guztiak:

“*Herriko jendearekin lan egiten dugu, kalitatezko
lehengaia lortzeko*”. Janaria prestatzeko era ere
tradizionala da: “*Nire amaren omenez egindako
bakailaoa daukagu*”. Edateko, ardo aukera ika-
ragarria: “*100 ardo ezberdin, kaba, xampaina...
denetarik daukagu*”.

Astelehenetik zapatara bazkariak eta afariak
ematen dituzte: “*Gorbatadun enpresari asko etor-
tzen zaizkigu asteen zehar; gauetan, aldiz, herri-
ko jendea hurbiltzen da*”. Batzuk zein besteak
pozik joaten dira etxera: “*Agian gure kozinatze-
ko enagatik izango da. Gauzak ondo egitea gustatzen
zaigu, betiko enan, teknika ararrok eta produktu
kimikoak erabili barik*”. Dena ondo badoa, gas-
tronomia eguna antolatuko dute. o

Euskal Herria, 16 ALGORTA
Tel.: 94 460 04 51

KONTXI
ZUAZUBISKAR
URDAITEGIXA
Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko,
Pate eta Gaztietan!!
Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

GOZOLABEA
GALDARETXE
• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

ARTAZA ETXEA
JATETXEA
• gozariak
• txuletoia • makailua
• arrain freskuak
asteburuetan bazkari eta afariak enkarguz
Erreserbak: 94 463 03 92
Artaza Etxea Eraikina, Gobela eraikinaren aurrean • LEIOA

JUAN-MARI

Harategia eta txarkuteria

LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asador Goieztzi

• Zabalik egunero
• Eguneroko menuak
• Enpresa menuak
• Menuak norberaren gustura
• Egunero karta berezia
• Gazez dastatzeko menua
astelehenetik- ostegunera
• Jaun hartze bazkariak
zure gustura prestatzen ditugu.
Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak

GETXOKO KIROLO PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoeirikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez pentsa”

Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)

Maite zaituen horrek malko bat baino gehiago isuraraziko dizu. Kontuz, beraz, zure bikotearekiko harremanetan. Bestelakoan, sasoi bete-betean zaude: osasuntsu, baikor... Bizitza gozatzeko prest. Zure esku dago...

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)

Espero zenuena laster ala berandu iritsiko da, baina ez zaitez hain urduri jar, laguntxo. Ikusiko duzunez, gauza bakoitza bere unean dator. Itxaron besterik ez duzu egin behar.

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)

Lagunekin dituzun asmo berri horien planak aurrera ateratzea merezi du, ongi ateratzeko aukera handiak daude eta. Zure gehiegizko jarduera horien arteko oreka lortzen baduzu ondo ibiliko zara.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)

Gaizki ulertuek ondorio latzak ekar ditzakete; erne zure bikotekidearekin, harremanak txarrera egin dezakeelako. Baztertu zure zeurekoikeria hori eta gauzak bere onera etorriko dira berriro.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)

Oso jarrera polita erakutsi duzu azken aste hauetan. Egunero hartzen duzu dutxa, zeure gauzak txukun eta garbi daukazu. Gauza bakoitza non daukazu badakizu. Primeran. Zeure burua non dagoen ere azkenean badakizu.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)

Oso aukera polita diru kontuetarako, hau da, erosi, saldu, inbertitu, maileguak burutu, burtsa... denetan emaitza ezin hobeak izango dituzu. Ezin aukera hau galdu!

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)

Lan egiteagatik ez da ezer gertatzen. Gainera behar duzun dirua irabazteko modu bakarra izan daiteke. Bestela, ez daukazulako ez negarrik egin. Maitasunari dagokionez, garai latzak datozkizu.

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)

Zorte handia izan dezakezu datozen egunotan. Kontua ez da espaloian bostehunekoa aurkitzea. Gauza askoz garrantzitsuagoi buruz ari gara hizketan. Etorkizuna argituko duten gauzez, alegia.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)

Sasoi bete-betean zaude eta gainera harremanetan ederto moldatzen ari zara azkenengo bolada honetan. Zoritxarrez, zeure gastuak kontrolatzen hasten ez bazara, diru kontuetan gauzak oker daitezke.

META



(Irailak 17 urriak 16)

Inguruko en eragin txarretatik urrundu, ez zaitez ergela izan, ekaitza dagoenean onena porturako bidea hartzea izaten da. Denbora gehiago eskaini zeure buruari eta zure lagunak ondo aukeratzeari.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)

Denen beti irabaztea ezinezkoa denez, noizbait galtzea ez zenuke txartat hartu behar. Espiritu lehiakor hori baretzen saiatu beharko zenuke, lasaigo biziko zinateke eta. Ez zalantzarik izan, kasu egidazu!

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)

Gorde itzazu ordainagiriak, isunak eta antzeko paper guztiak. Beharko dituzu. Ez dakigu zergatik baina badirudi zure izena lagunen memoria kolektibotik desagertuko dela. Kontuz, erakundeek dirua eskatuko dizute.

MUNGIA OKINDEGIA




Algortan badaukagu
artisauen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Ikasiak, eskolan ibiliak. 2. Erroa, sustraia. Emea ez dena. 3. Gorabeherak, liskarrak. 4. Sail, soro. Abederako azken eta lehen letrak. Berrogeita bederatzi. 5. Bizkaieraz, beltza. Ate, hitz elkarretan. 6. Bokala. Zuten. 7. Ikatz egileak. 8. Lore mota. Arte. 9. Yemengo hiri eta portu garrantzitsua. Egin iezaio. 10. Atzizkia. Bihia, garaua. A bikoitza.

Goitik behera

1. Hitzezko liskarrak. 2. Erakunde bateko zatia. Arabiarren artean, auzi zibiletarako epaile. 3. Kirola gogoko du. 4. Onartu ezin dena. 5. Euskal Herriko sindikatua. Ez hika ez berorika. Berrogeita hamar. 6. Bokala. Izaera du. Bokal bikoitza. 7. Ipar, 'kada' balio duen atzizkia. Ale edukiera neuria. 8. Oinarizko isurkaria. Ate. 9. Etxe sortzailea. 10. Atzizkia. Behar, egiteko. Alfabetatze eta euskalduntze erakundea.

Soluzioak

V	V		V	E	T	V		I	K
K	O	I	G		N	E	D	V	
I	T	R	E		V	I	T	V	D
	K	V	N	I	K	Z	V	K	I
N	E	T	V	K	U	E	Z		V
V	T	V		V	Z	T	T	V	B
T	I		V	Z		H	O	T	V
V	K		V	I	B	I	R	A	T
V	H	V		V	N	I	V	Z	
V	K		V	T	V	L	O	K	E

asmatu eta irabazi > ARGIA astekariaren opariak



Nor da?

- Erresuma Batuan jaioa
- Letrak dira bere ogibidea
- Suedian sari garrantzitsu bat eman berri diote

> Aurrekoaren erantzuna: Pedro Subijana

> Irabazlea: **Asier Zarandona (Getxo) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz

• *Argia* astekariaren hiru hilabeteko harpidetza doan



• *Freexkue* liburua

www.argia.com



gure posta elektronikoa

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria



PATXIN LOPEZ DE LETONAK UTZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Ehiztariak vs arrantzaleak, 1963

Faduran urte askotan San Jose egunez ehiztarien eta arrantzaleen arteko partida jokatu zen; baina norgehiagoka baino gehiago, jai herritarra izaten zen hura. Argazkian daudenak (ehiztariak eta arrantzaleak elkarrekin) lagunak ziren eta ia egunero Bengoetxea Bodeguillan (gaurko Butron Bodeguilla) elkartzen ziren. Eurak izan ziren jai horren sortzaileak eta antolatzaileak. Hilabete lehenago edo, jaia prestatzen hasten ziren: futbol talde bietako futbolarien aukeraketa, arbitroa (Urrestarazu, Gardeazabal, Sainz...), futbol zelaia prestatu, Bizkaiko dantza taldeak deitu... hainbat eta hainbat gauza. Dendariak ere laguntzen zuten eta, horrela, dendaz denda litxarrerria eta gozoki kilo asko batzen zuten gero futbol zelaian umeei oparitzeko. Jaia amaitu ondoren Isidro tabernara bazkaltzera joatea zen ohitura. ○

Zutunik: Eusebio Garcia(GB), Joakin Mendia (GB), Anton Larrea (GB), Jose Luis Ares, Belarmino Muñoz (GB), Jose M^a Aurrekoetxea (GB), Valeriano Gonzalez (GB).

Makurturik: Francisco Lopez de Letona "Patxin", Javier Huidobro, Jose Ramon Artola "Artolita" (GB), Fernando Mendia "El pipas" (GB).

HARKAITZ M. DE SAN VICENTE > mOusikaria

“Hurreneko kafea eta gero izaten da nire momenturik goxoena”

Testua: **Maitane Nerekan**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.

Kaxkagogorra eta kidea.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?

Ez naiz aktorea.

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?

Ez nuke pertsona bat aukeratuko, jende gutxi miresten dut. Pertsonak baino gehiago lanak miresten ditut nik.

Ohitura txarren bat al daukazu?

Txukuntasun falta.

Aitor dezakezun bizio bat.

Parranda.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?

Laosera joango nintzateke berriro. Bizikleta zeharkaldi bat egin nuen. Oso herri berezia iruditu zitzaidan eta komunikazio gutxi lortu nuen. Gustatuko litzaidake berriro joan eta denbora gehiago egotea.

Zein da zure ametsetakoa bat?

Orain arte egin ditudanak; musika, Nomadak... horiek izan dira nire ametsak eta horretan ari naiz.

Irakurri duzun azken liburua?

Karmele Jaioren *Hamabost zauri*. Asko gustatu zait; oso errealak eta gertukoak iruditu zaizkit kontakizun guztiak.

Goiza ala gaua?

Goiza. Hurreneko kafea eta gero nire momenturik goxoena da.

Orain zarena izango ez bazina zertan gustatuko litzaizuke jardutea?

Baserri bat eduki eta nekazal turismo bat eramatea gustatuko litzaidake.

Euskal Herriko zure txoko kuttuna?

Granadaerreka, Ernio azpian. Oso oroitzapen onak ditut toki horretan. ○

LABURREAN— Donostian jaio zen Harkaitz Martinez de San Vicente eta Euskal Herriko txoko askotatik pasa ostean, atzeara Donostia inguruan bizi da gaur egun. Oso gaztea zelarik hasi zen musika munduan, izan ere, 12 urterekin punk-rock musika jotzen zuen talde bat sortu zuen lagun batzuekin batera. Lau urte geroago, txalaparta ikasten hasi zen Hernaniko musika eskolan, Juan Mari Beltranen eskutik. Orain dela 10 urte, Oreka TX taldea sortu zuen Igor Otxoarekin eta ordudunik, buru belarri dabil horretan. Azken 10 urte hauek biziak eta aldakorrak izan dira Harkaitzentzat, izan ere, Oreka TX lagun biren apustu pertsonala izan da. 2008an, *Nomadak TX* proiektuan oinarritutako kontzertu birarekin hasteko asmoa daukate, bidaiaren berri emango duen espektakulu multimedia.

www.thebalde.net

irudi batek ez du 1000 hitz baino gehiago balio...
Irudi batek 1000 irakurketa izan ditzake

an image is not worth 1000 words...
an image is worth 1000 meanings



the balde
aldizkaria

